

**ARTE GARAIKIDEAREKIN JOLASTEN**

**HARREMAN SAREAK KIRIBILTZEN**

**HAUR HEZKUNTZAN IKERTZEN ETA IKASTEN**

---

**GRADU AMAIERAKO LANA**

**NAN / DNI :** 44675436-Y

**EGILEA / AUTOR:** Elizburu Artabe Maider

**GRADUA / GRADO:** Haur Hezkuntzako Gradua/Haur Hezkuntzarako Tailerrak (0-6 zikloa)

**ZUZENDARIA / DIRECTOR:** Jimenez Aberasturi Apraiz, Estibaliz

**DEIALDIA – URTEA: EKAINA- 2023/2024 IKASTURTEA**

## LABURPENA

Ikerlan honetan, adierazpen plastikoaz haratago Arte Garaikidea dagoela aztertu da: ikasteko modu anitzak eskaintzen dituena; Haur Hezkuntza etapan ikasprozesu ikertzaileak gauzatzeko espazioa zabala duena; nahiz, kide guztien ezaugarriak kontutan hartuta, modu inklusibo batean, haurra eta irakaslea maila berean ikasten jartzen saiatzen dena. Aztergai izan den eskola ekosisteman, hezkuntza tradizionalari lotutako Arte Hezkuntzaren estereotipoak identifikatu eta eskola kontzeptua Hezkuntza Posthumanistarekin birpentsatu da; gizarte harreman sarea ezagutu eta antropozentrisismoaren dualismoa baztertuz, kalitatezko hezkuntza bermatzeko. Hots, interbentzioaren emaitzek, artearekin pentsamendu kritikoa landu eta ezagutzak transmititu daitezkeela baieztatu dute; irakaslea, haurren kulturara gerturatu eta arte baliabideak erabiliz, ikaste prozesuak kimatu daitezke.

HITZ-GAKOAK: Hezkuntza Posthumanista, harreman sarea, haurren kultura, Arte Garaikidea, ikasprozesu ikertzailea eta pentsamendu kritikoa.

## RESUMEN

En este estudio se ha analizado que, más allá de la expresión plástica, existe el Arte Contemporáneo, que ofrece múltiples formas de aprender; que dispone de un amplio espacio para desarrollar procesos de aprendizaje investigador en la etapa de Educación Infantil; pero que, teniendo en cuenta las características de todos sus miembros, trata de poner al niño y al profesor a aprender al mismo nivel de manera inclusiva. En el ecosistema escolar objeto de estudio, se han identificado los estereotipos de la Educación Artística asociados a la educación tradicional y se ha repensado el concepto de escuela con la Educación Posthumanista, conociendo la red de relaciones sociales y rechazando el dualismo del antropocentrismo, para garantizar una educación de calidad. Los resultados de la intervención, trabajando el pensamiento crítico con el arte, han confirmado que se pueden transmitir conocimientos; el profesor, se ha acercado a la cultura de los niños y se han llevado a cabo procesos de aprendizaje utilizando recursos artísticos.

PALABRAS CLAVE: Educación Posthumanista, redes de relación, cultura infantil, Arte Contemporáneo, aprendizaje investigador y pensamiento crítico.

## ABSTRACT

This study has analysed that, beyond plastic expression, there is Contemporary Art, which offers multiple ways of learning; which has ample space to develop research learning processes in the Infant Education stage; but which, taking into account the characteristics of all its members, tries to put the child and the teacher to learn at the same level in an inclusive way. In the school ecosystem under study, the stereotypes of Art Education associated with traditional education have been identified and the concept of school has been rethought with Posthumanist Education, knowing the network of social relations and rejecting the dualism of anthropocentrism, in order to guarantee quality education. The results of the intervention carried out, in response to social demands, confirm the transmission of knowledge through critical thinking with art; processes of bringing the teacher closer to the children's culture and learning with artistic resources have been carried out.

KEYWORDS: Posthumanist education, relational networks, children's culture, contemporary art, research learning and critical thinking.

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA</b>	<b>5</b>
<b>2. MARKO TEORIKO KONTZEPTUALA</b>	<b>6</b>
2.1. HEZKUNTZA GARAIIKIDEAREN EZAUGARRIAK	6
2.1.1. EAE-KO HAUR HEZKUNTZA CURRICULUNARI BEGIRA	7
2.1.2. ESKOLA IKUSPEGIA	7
2.2. HEZKUNTZA ARTISTIKOA ETA IRAKASLEAREN EGINKIZUNA	8
2.2.1. HEZKUNTZA ARTISTIKOAREN KONTZEPTUAREN ANALISIA EGUNGO GIZARTEAN	9
2.2.2. IRAKASLEAK ALDAKETA-ERAGILE GISA DUEN ZEREGINA	10
2.2.2.1. NARRAZIO ESPERIENTZIA-TESTUA: NORBERA TESTUAREN PARTE	11
2.3. BEGIRADA POTSHUMANISTATIK IRAKASTEN	12
2.3.1. HAUR HEZKUNTZAN IKERTZEN	13
2.3.2. ARTE HEZKUNTZA ETA IKUS-KULTURA KRITIKOA HAUR HEZKUNTZAN	14
2.4. HEZKUNTZA HOBEKUNTZA IKUSPEGIA	15
<b>3. IKERKETA IKASPROZESUA</b>	<b>16</b>
3.1. IKERKETA HELBURUAK	17
3.2. IKERKETA GALDERAK	18
<b>4. PROZEDURA</b>	<b>18</b>
<b>5. METODOLOGIA</b>	<b>18</b>
5.1. ESKOLAREN DESKRIKAPEN MIKRO-ETNOGRAFIKOA	18
<b>6. INTERBENTZIO PEDAGOGIKOA</b>	<b>19</b>
6.1. TESTUINGURUA	19
6.2. IKERKETAREN FASEAK ETA PROZESUA	20
6.2.1. LEHENENGO FASEA: KONTESTUAREN AZTERKETA ETA BEHAKETA	21
6.2.2. BIGARREN FASEA: IRAKASLEARI PROPOSAMENA AZALDU	22
6.2.3. HIRUGARREN FASEA: HEZKUNTZA PROPOSAMENA AZTERTU ETA U.D. ERALDATU.	23
6.2.4. LAUGARREN FASEA: "PERFORMANCE" ARTE GARAIIKIDEA	25
<b>7. INTERBENTZIO PEDAGOGIKOAREN EMAITZAK ETA EZTABAIDA</b>	<b>27</b>
<b>8. ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK</b>	<b>30</b>
<b>9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA</b>	<b>32</b>
<b>10. WEB GUNEAK</b>	<b>34</b>
<b>11. ERANSKINAK</b>	<b>35</b>
11.1 - 1. ERANSKINA: IKASKETA PROZESUA	35
11.2 - 2. ERANSKINA: KONTESTUAREN AZTERKETA ETA BEHAKETA	37
11.3 - 3. ERANSKINA: "SITU AKZIOA" U.D. ERALDATZEKO IKASTE BERRIETARA GERTURATZEN	48
11.4 - 4. ERANSKINA: UNITATE DIDAKTIKO BIRFORMULATUA	48

11.5 - 5. ERANSKINA: INTERBENTZIOAREN HAUSNARKETA	48
11.6 - 6. ERANSKINA: BURU HAUSGARRI JOLASA	53
11.7 - 7. ERANSKINA: BLOGG-A	53
11.8- 8. ERANSKINA: 1. ELKARRIZKETA	53
11.9 - 9. ERANSKINA: ESKOLAZ KANPOKO DATU BILKETA	54
11.10 - 10. ERANSKINA: EBALUAZIOA	54
11.11 - 11. ERANSKINA: 2. ELKARRIZKETA	54
11.12 - 12. ERANSKINA: INPLIKAZIO ETIKOAK AITORTZEKO DOKUMENTUA	54

## 1. SARRERA ETA JUSTIFIKAZIOA

Ikerketa-proiektu honetan, ikaskuntza bide berriak ezagutu nahi dira eta 2024.urtean, haurrek nola ikasten duten aztertu nahi da. Beti ere, inguratzen gaituen errealitatera egokitzen diren ikasketa moduak ezagutzeko eta EAE-ko Hezkuntza aberasteko baliagarriak diren erramientak geureganatzeko. Hortaz, Aro Garaikidearen testuinguruan kokatzen den, ikerketa-proiektua da eta ikaskuntza-ingurune funtzionalak, erakargarriak, deigarriak eta motibagarriak planteatzen dira, Haur Hezkuntzako irakasleak irakaskuntza-rola hobetzera gonbidatzen dutenak.

Gradu amaierako lan honek, alde teorikoa eta praktikoa ditu. Alderdi teorikoari dagokionez, hainbat atal garatzen dira, hala nola; egungo Hezkuntza Garaikidearen ezaugarriak, eskolaren begirada, curriculumaren papera eta Haur Hezkuntzan pentsamendu kritikoa garatzeko Arte Garaikidearen hainbat baliabide. Hein batean, Hernández-Hernándezek (2017) zioenari jaramon eginez, hezkuntza birformulatzea planteatzen da:

Nos brinda nuevas posibilidades de pensar sobre la subjetividad posthumana, al configurar el posthumanismo como un instrumento genealógico, una brújula para la navegación, un modo de comprometerse con el presente de una manera no reduccionista y binaria, como un espacio para reconfigurar lo esencial de lo humano y replantear nuestra relación con otros agentes humanos y no humanos (2.or).

Esku hartzearen diseinua practicum-a egin den ikastetxera bideratu da. Bertan, izan baita aukera testuingurua ezagutu, ikertu eta hobekuntza proposamena errotzeko. Ikasteko, pentsatzeko eta ikuskera transformatzeko unitate zabala den esperientzia planteatzen da. Taldean bildu eta ezagutzak sortzeko bidea jorratu da; diziplinartekotasuna bermatuz, nahiak asetuz, artearekin jolasean eta dantzan jarri dira. Irakaskuntza metodozentrismotik haratago hedatu eta, Arte Hezkuntza eta Ikuskultura lagun direla, haurrak artelan sortzaileak, zientzialariak, esploratzaileak eta beren ikaskuntzaren eraikitzaileak bilakatuko dira.

Hain zuzen ere, ahotan hartu den esaldi gogora dakart, “XIX. mendeko eskolak ditugu, XX. mendeko irakasleekin eta XXI. mendeko ikasleekin”, oso ondo jasotzen baitu egungo irakaskuntza-egoera, iraganean itsatsita geratu dena, irudiaren kultura hazkundera, irudiaren boterea, eta bultzada teknologikoak ekarri duten informazio espantsiotik urruti dagoena. Alegia, Aguirrek (2006) dioten moduan, eskola ez da jakintzak transmititzeko leku bakarra eta beraz, aldaketak eman behar dira eskola-hezkuntzaren helburuetan. Eskolak norbanakoa prestatzearen eginkizuna izango du, egungo informazio amaigabearen erabilera kritikoa eta demokratikoa egiteko gai dena. Horretan datza ikerketa lan hau, Arte esperientzietatik ikasi eta

ikas prozesu berriak bilatzean. Hau da, Artearekiko estereotipoak hautsi eta Artea zergatik ez ezagutzak transmititzeko? galderari erantzuten saiatuko da.

## 2. MARKO TEORIKO KONTZEPTUALA

### 2.1. HEZKUNTZA GARAİKIDEAREN EZAUGARRIAK

Informazioaren sintesiari hasiera emateko, hezkuntzak egun gizartean duen kokalekua behatuko dugu. Gailu digitalen, hezkuntza-aplikazioen, lineako plataformen eta multimedia-baliabideen erabilerak irakaskuntza-aukerak zabaldu ditu, eta ikasleei informazioa eta baliabideak azkar eta eraginkortasunez eskuratzeko aukera eman die. Informazio kantitate erraldoiarekin inguratutako gizartea da, gure hirietan, irakaskuntza gehiena eskolatik kanpo egiten dela dio Carbonell-ek (2015). Prentsak, aldizkariak, filmek, telebistak eta irratiak helarazitako informazio kopurua, neurri handi batean, instrukzioak eta testuak eskolan jakinarazitakoa baino handiagoa da. Erronka horrek liburuaren monopolioa suntsitu du, irakaskuntzari laguntzeko, eta geletako hormak eraitsi ditu, hain bat-batean, non nahastuta eta harrituta baikaude.

Bide beretik, Carbonell ahotan hartuta Pagán (2015) adituak aipatutakoa aintzat hartuko dut lanean aurrera egiteko eta Hezkuntza Garaikidearen ezaugarrietan kokatzeko.

Una mirada que se detiene en la calle y sus protagonistas, en el encuentro, los iconos y el recuerdo vivenciado para introducir “Las pedagogías no institucionales, aprendizaje y educación fuera de la escuela” donde escribe de la difusión vertical a la comunicación horizontal, de las nuevas conexiones entre personas y artefactos, el conectivismo (una nueva teoría del aprendizaje), del conocimiento del entorno urbano como espacio motivador, de la educación “expandida” entre lo no formal y lo informal, para significar la importancia de la educomunicación (327. or).

Hala nola, XXI. mendeko ikuspegiari so eginez, hezkuntzak egungo munduarentzat garrantzitsuak diren trebetasunak garatu behar ditu, hala nola pentsamendu kritikoa, sormena, lankidetzak, komunikazioa eta alfabetatze digitala (Carbonell, 2015). Trebetasun horiek funtsezkotzat jotzen dira ikasleak prestatzeko, lan-munduaren eta egungo gizartearen erronkei aurre egiteko.

#### 2.1.1. EAE-KO HAUR HEZKUNTZA CURRICULUNARI BEGIRA

Ez dugu ahaztu behar, Hezkuntza-prozesua ikasle bakoitzaren beharrezko indibidualetara egokitzearen garrantzia. Pérez, Etxeberria eta Etxabek (2001) esan bezala, ikaskuntza pertsonalizatuaren ikuspegiak ikasle bakoitzarentzat garrantzitsuak, esanguratsuak eta

motibatzaileak diren hezkuntza-esperientziak ematea dute helburu, ikasleen interesak, trebetasunak eta ikasteko estiloak kontuan hartuta Haur Hezkuntzan haur bakoitza bakarra eta berezia da. Horrez gain, hezkuntza legeak, Eusko Jaurlaritza (2023). 75/2023 Haur hezkuntzako dekretuak ulertarazten digun moduan:

Ikaslea da euskal hezkuntza-sistemaren giltzarria, eta goragoko etapen amaieran ikasle bakoitzak irteera-profila lortzea da helburua. Ziurtatu behar da ikasle guztiak XXI. mendeko erronkei pertsonalki, sozialki eta profesionalki arrakastaz aurre egiteko moduan daudela. Hori guztia, ongizate emozionaleko inguru inklusibo eta seguru batean (2. or).

Hori dela eta, praktikan, ikasleek, esplorazioaren, esperimentazioaren eta problemak konpontzearen bidez, beren ezagutza eraiki behar dute eta modu aktiboan parte hartu; Ikaskuntza aktiboa eta praktikoa sustatzeko. Hezkuntza garaikideak kultura, etnia, hizkuntza eta genero-aniztasuna balioesten du, eta banakako desberdintasunak errespetatu eta ospatzen dituzten hezkuntza-ingurune inklusiboak sustatzen ditu. Neurri batean, ikasle guztientzat ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzearen garrantzia nabarmentzen da.

Haurren garapen integrala eta harmonikoa bultzatu nahi du, dimentsio guztietan: fisikoan, emozionalean, afektiboan, sozialean, kognitiboan eta artistikoan, autonomia pertsonala sustatuz eta beren buruaren irudi positiboa eta orekatua sortuz, bai eta bizikidetzarako balio zibikoetan hezteare. (Eusko Jaurlaritza, 2023 ,15. or.)

Hezkuntza garaikideak hezkuntza integrala eskaini behar du, ikasleen garapen akademikoan ez ezik, garapen sozial, emozional, fisiko eta etikoan ere oinarrituko dena. Kontutan hartuz, curriculumetik kanpoko jarduerak ere, ikasleen ongizatea eta herritartasun globalerako hezkuntza baloratzen dira.

### 2.1.2. ESKOLA IKUSPEGIA

Haur Hezkuntza etapan, letra, zenbaki, eragiketa simple, eta marrazketa libretik haratago joan behar da, Practicum III behatu bezala, iruditegi eta pantailen aurrean jarduera solteekin ezin erantzun. Ezagutza, egun gizarte eta kulturarekin guztiz kateatua da. Ezagutza hori errealitate berri honi modu eraginkorrean aurre egiteko erabiltzen jakitea izango da funtsezkoa, eskolan helburua norbere kabuz pentsatzeko gai den pertsona eraikitzea bada bederen. Gizartearen beharrak aldatzeak, hezkuntzarenak ere aldatzea dakar (De Martín, 2005). Eskolak, inguru hurbilarekin kale, auzo eta hiriarekin, bat egin behar du. Adituak defendatzen duen moduan; eskolak errealitateko egoerei aurre egingo dien hiritarrak hezi behar ditu.

Izan ere, jendartea etengabeko aldakuntzan dago, horrek informazio eta ikasketa berrien aurrean jartzen du eskola. Eskola gizarte-eraldaketaren eragile gisa azaltzen du Hoyuelosek (2004), Reggio ikuspegiarekin<sup>1</sup> bat egiten du. Tradizionalki, eskolaren rola eta tradizio soziologikoetako bat den, eskolak kulturaren eta kulturaren ugaltzaile papera alde batera utzita, eskolaren hiru ezaugarri gaineratzen ditu:

En primer lugar, es motor de transformación social y no puede actuar solamente para la reproducción. En segundo lugar, la escuela recoge los valores culturales en los cuales están insertos los niños (valores actualmente en crisis con la llegada de inmigrantes y el mestizaje de culturas; por lo tanto, saber en qué cultura estamos es mucho más complejo hoy que hace algunos años). Finalmente, la escuela tiene que tener la característica, sobre todo, de escuchar cómo es la cultura de la infancia, que muchas veces no se corresponde con la idea que el adulto tiene sobre la infancia (Hoyuelosek, 2004, 3 or.).

Eskolaren desafioa, etengabe aldatzen joango den informazioa izango da, edonon eskuragarri dena. Horretarako, legea gidari izango da, Haur Hezkuntza curriculum (2023), hezkuntza nolakoa izango den pentsatu eta diseinatzen duena, estatu boterearekin zuzenki lotua dena, hezkuntzak dituen apustuetatik urruti pausatzen dena (Mella, 2003). Presente den eszenatokian aritzeko eskolak baliabide berriak behar ditu, mudatzea; antolaketan, funtzionamenduan, metodologietan, edukietan eta baita bere helburuetan ere (Coll, 2010).

## 2.2. HEZKUNTZA ARTISTIKOA ETA IRAKASLEAREN EGINKIZUNA

Arte plastikoen eta Ikusizkoen didaktika lanean Anduezak et al., (2019) helarazitako legez, haurrengan, motibazioa funtsezko elementua da bere gaitasuna garatzeko eta ikaskuntza esanguratsuen bidez ikasteko. Haur batek bere ezagutzetan konfiantza izaten du, eta horri esker aurrean duen esperientziaren egokitzapena ezagutza eraikitzaile izaten da.

Ordea, adituek dio, askotan gertatzen den moduan, adin batera iristean, marrazkiarekiko interesa galtzen dute, aurreko eskemek jada ez diote balio, oso infantilak iruditzen zaizkie, arrazoimenduak aurkezten dien errealitatearen adierazpena ez dator bat egiten dutenarekin eta horregatik, marrazten ez dakitela konbentzitzen dira. Gauza bera gertatzen da jolasarekin, jolas inozoak jada ez baitira bere barneko interesgune. Hori dela eta, funtsezkoa da haurren garapenaren fase guztietan barneko eta kanpoko motibazioa izatea eta horretan, irakasleak funtsezko papera du, inguratzen gaituen gizartea arakatu eta bertatik ikasteko.

---

<sup>1</sup> Hoyuelos, A. (2006). *La estética en el pensamiento y obra pedagógica de Loris Malaguzzi* (pp. 177-237). Barcelona: Octaedro.



IKT-ek ere bai, funtsezko rola betetzen dute gizartean eta motibazioan, bereziki komunikazio eta elkarreragin sozialeko esparruetan, horregatik aurrez esan den bezala garai bateko eskemek ez digute balio, harreman sareak aldatu dira eta hauek manifestatu behar ditugu.

Behin gure jomuga zein den miatuta, Aberasturik el at., (2018) osatzen duen, Elkarrikertuz (IT-887-16) Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultateko irakasle ikertzaile taldeak, Hezkuntza esparru formal eta ez formalean IKT-ekin aurrera eramandako hezkuntza berrikuntza prozesuak aztertu, deskribatu eta interpretatzeko ikerketa proiektuak garatzen dituzte beste batzuen artean. Beraiek defendatzen duten moduan, ikerketetatik sortzen den ezagutza zabaltzeko jarduerak antolatzea da egungo hezkuntzaren moldeak. Hala nola, ikastearen kontzeptu tradizionalak egun ez du parajerik eta mugagabeko ikasketa prozesu interesgarri eta motibatzaileak behar dira, esperientzia ezberdinak, egungo informazio amaigabearen sareetan bidaiatzeko.

#### 2.2.1. HEZKUNTZA ARTISTIKOAREN KONTZEPTUAREN ANALISIA EGUNGO GIZARTEAN

Jarraian gure gaiarekin lotura zuzena duen, Arte Hezkuntzara begirada egingo dugu. Hezkuntza artistikoaren eredu zabalduna esku trebetasuna garatzea, ahalik eta psikomotrizitate gradurik altuena lortzea eta ahal den neurrian gustu estetikoa bereganatzea helburu dituen da (Hernández-Hernández, 2017). Aurreko mendeek utzi diguten ezaugarriak dira; irakaslea eta ikasleak bi mailetan, edukiak erdigunean, ezagutza helaraztearen direkzioa aldatzea halabeharrezko da. Adituak aldarrikatzen duen legez, ordenagailuko disko gogorrean datuak sartzeari utzi eta harreman sare berriak daudela ulertu behar da.

Burokratikoki edo/eta formalki Haur hezkuntza dekretuan (2023), Artea hezkuntza, sistemaren barruan sartzen den diziplina dela idatzia den arren, hizkuntzak, zientziak edota matematika eskolan aurkitzen ditugun moduan Arte Hezkuntzak baino, garrantzi gehiago bereganatzen dute. Artea talde ezaugarri konkretu batzuei lotu da eta kapitalismo industrialaren klonazioaren mamua globalizazioarekin babestu da (Hernández, 2019). Adibide da, praktikum III burututako ikastetxean, plastika txokoan diren, Barragan eta Morenok (2004) definitu dituzten hainbat molde eredu-akademista edota auto-espresionista eta halaber, irakaslearen begirunea iraganean dagoela hauteman da.

Errealitatean, Hernández (2023) hitzetan, teknologia digitalean murgildua dagoen gizarteak, pentsamendu ilustratua duen kristau bezala urte askotan definitu den ideia; gizona munduaren

erdigune, lurra bereganatu eta menperatu nahi duen pertsona, ez dator bat egungo harreman sareekin. Hori dela eta, gizakiaren esanahia zein den aztertuz, Arte Hezkuntza tradizionalaren zainak mozteko, eskola ikuspegia birkontzeptualizatzea ezinbesteko da. Beraz, egungo hezkuntza eszenatokiari aurre egiteko, Arte Hezkuntza baliabidea identifikatzea aurreneko pausua da.

Aurrera eginez, Aberasturik *et al.*, (2018) Artearen ikuspegitik<sup>2</sup> XXI. mendeko hezkuntzari aurre egitea proposatzen du, begirada kritikoak sortzeko asmoz, ikasteko modu berriak eraiki eta aniztasunari erantzuten dien etorkizuneko andereino eta maisuen prestakuntza sendotzeko. Hein batean, irakasle eta ikasleen arteko elkarlanaren ildoak ustiatzen dute; artea eta artefaktuak sortzetik, gizartera katapultatzen dira ikusiak eta partekatuak izateko. Ikerketak eginez, gizarteak planteatzen dituen erronkei erantzunak bilatzen saiatzen dira. Ikerketa lerroetako batzuk hauek dituzte:

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak teknologia digitalaren bitartez.
- Hezkuntza berrikuntza testuinguru formaletan eta informaletan.
- Irakasle identitatea eta prestakuntza.

Are gehiago, gurearekin bat eginez, eskoletan Arte Hezkuntza nola irakasten den behatzea beharrezkoa dela aldarrikatzen da liburuan, hainbat molde eredu-akademista eta auto-espresionista baztertzeko.

### 2.2.2. IRAKASLEAK ALDAKETA-ERAGILE GISA DUEN ZEREGINA

Eskolan Hezkuntza Artistikoa birbideratzeko, beharrezkoa da irakaslearen figura hezkuntza aldaketarako zirikatzailerik bihurtzea. Horrek, irakasle kritikoagoa izatea eskatzen du, ikasleei ezagutzak transmititzea baino bideratzaile eta orientatzaile izatea eta prozesuak, arlo artistikoetako emaitzak baino gehiago balioetsiko dituenak, ez dadila artelanen eta ikuskulturako artefaktuen esanahien erakusle hutsa izan (Aguirre, 2015).

Kideko da Hoyuelos (2004) ere, irakaslea eskolara ikastera joatea planteatzen duena. Beronen iritziz, “Lo importante es que las maestras salgan de los esquemas rutinarios y acomodados en los que están para establecer procesos creativos que tienen que ver con las posibilidades de transgresión de los acontecimientos que normalmente han sido vistos desde un solo punto de

---

<sup>2</sup> Jiménez Aberasturi Apraiz, E., Fernández Olaskoaga, L., Correa Gorospe, J. M., & Gutiérrez-Cabello Barragán, A. (2018). Artearen sorkuntzatik hezkuntza ikerkuntzara. XXI. mendeko eskola.

vista” (3. or); irakaslea ikertzaile iraunkorra da, eta, gainera, ondorioak ez dira iristen modu erretorikoan, baizik benetako proiektuen dokumentazioak deskribatuz, giza aukeran narrazioak dira.

Esanak esan, aurrean dugun eskola gela eta haur taldea behatzea nahitaezko da. Baita haurrekin nola ikertu jakiteko hauen ikuspuntua jakitea ezinbesteko da. Haurrak gizarte-eragile gisa aipatzeak diskriminaziorik eza eta beren garaiko gizartean benetan eta eraginkortasunez parte hartzea dakar (Rubiano, 2010). Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan (1989) ezarritako mugak ez ditu oinarritzko eskubide (entzuna izatekoa) gisa ezartzen ostera, zailtasunak dira medio eta haurrak entzuna izateko duen eskubidea gauzatzeko oztopo handienetako bat helduen jarrera da, haurren iritziak gutxiesten jarraitzen baitu. Haurrak innatoki dute ikerketarako grina helduen beldurren baitan itzaltzen baitira (Malaguzzi, 2001).

#### 2.2.2.1. NARRAZIO ESPERIENTZIA-TESTUA: NORBERA TESTUAREN PARTE

Ez da erreza irakasleen papera; alde batetik, hezkuntza legearen dokumentuen eskakizunak eta bestetik, praktikan hurrekin duten agertokia. Idatzitakotik praktikarako saltoan “zulo beltza”, Ershlerrek (2003) narratiba testuan<sup>3</sup> azaltzen duen erara, zeharkatu beharreko erreka handi bat dago nola zeharkatu ez dakigula. Gizarteko eskakizunek eta barneko sinesmenek sortzen duten emozioen sentimenduetan korapilatua.

Ibaia zeharkatzeko hezkuntzaren transformazioaz gain, helduarengan eragiten duten elementu asko, aztertu eta egokitu behar dira. Irakaslearen esku hartzeari begira desberdintasun hauek kontutan hartzea nahitaezko dira, ikaskuntza prozesuan irakasle eta haurren beharrak ezberdindu, elkarlanean aritzeko. Behin gure aldartea aintzat hartuta, ala dio Ershlerrek (2003), irakasle guztiok egunero dugu ibai bat zeharkatzeko izan ere, esperientziaz ikasten baitugu eta ibilbide profesionala ikasbide bat da.

Este capítulo trata de ese proceso de aprender de la experiencia. Describe una metodología narrativa que he diseñado para facilitar este aprendizaje. Las premisas subyacentes a este procedimiento son que los profesores pueden aprender de sus experiencias escolares si tienen la oportunidad para ello y que la experiencia es el más poderoso de los contextos para el desarrollo de los docentes (Ershler, 2003, 194. or).

---

<sup>3</sup> Ershler, A. R. (2003). La narrativa como texto experiencial: incluirse en el texto. In *La indagación como base de la formación del profesorado y la mejora de la educación* (pp. 193-208). Octaedro.

Orobat, narratiba testua barne emozio eta sentimenduen gidari ere bada, helduaren eta haurren sentimenduak bereizteko erreminta non, egunerokoa bertan islatzen den hausnarketa nahiz, ikasketa kimatzeko.

Honenbestez, narratiba esperientzia testu giza aldarrikatzen duen moduan, ikaskuntza ere ez da zertan esperientziaren ondoren gertatzen. Esperientziatik ikasteko, pentsatu eta zentzua eman behar zaio egin behar dugunari. Hori horrela, non aurkitzen naizen aztertu eta ze harreman sareri lotua nagoen behatzea beharrezko da, hezkuntza hobekuntza berrikuntzarako prestutasuna erakusteko. Hau da, ikuspegi berriak txertatzeko eta Hezkuntza Arte Hezkuntza eta Ikuskultura errekurtsioei begira jartzeko.

### 2.3. BEGIRADA POSTHUMANISTATIK IRAKASTEN

Ildo beretik, Esbrina Recercak (2019) antolatutako biltzarrean Hernándezek, haize Post Humanistak humanitate digitaletan uztartu ditu. “Vitruviar Gizona” gauza guztien eta materiaren egituraren neurri gisa Leonardo da Vincik (1490) eginikoa, giza zentraltasuna, Posthumanismoak zalantzan jartzen du. Emandakoaren eta eraikiaren (natura eta kultura) arteko dualismoa eta “giza izaeraren” zentzua zalantzan jartzen ditu. Begirada honek, naturarekin, besteekin eta geure buruarekin harremantzeko modu dualista hausteko aukera ematen digu.

Horregatik, adituak batzarrean azaldu duenari helduz, gure espeziea, gure politika eta planetako gainerako biztanleekin (gizakiak, ez-gizakiak eta objektuak) zer ezaugarri dituen hausnartzea eta birkontzeptualizatzea behar da. Izan ere, egun teknologia aurreratuek mundu birtual bat sortu digute, perfekziora begirakoa eta ezin gera gizakiaren subjektibotasunean murgilduta gelditu. Pentsatzeko aukera berriak ematen dizkigu Posthumanismoak, nabigaziorako iparrorratza, orainaldiarekin modu ez murriztailean eta ez bitarrean aritzeko modu bat da. Agian gizartearen oreka lortzeko modua bat ere bada?

Adituak planteatzen duen aldetik, gizakiaren funtsa birkonfiguratzeko eta beste gizaki eragile batzuekin eta giza eragile ez direnekin dugun harremana birplanteatzeko espazio bat eraikitzeke proposamena da. Gainera, badira hainbat zientifiko honen atzean: Donna Haraway “natura eta kultura elkarrekintzan daude bana ezinak dira” dioena; Rossi Bradotti “apurtu dualismoak, digitala/analogikoa eta humanista /natura, etab” goraiatzeko duena eta Karen Barad “femenino/maskulinoaren herentzia humanista” aztertzen duena.

Agian "gizakiarekiko" kezka soilik murriztuta dauden Heziketa Diziplina Proiektu humanista gisako nozio tradizioaletan sartuta gailtza eta Posthumanismoak hain zuzen jomuga horiek zalantzan jartzen ditu (Snap eta Wever-ek, 2015). Hau da, pentsamendu ilustratuen proiektuak, ikuspegi humanistatik, gizakiarekiko arduratik, beste noranzko batzuetara begira jarri behar direla dio Hernandezek eta eskola birpentsatu behar da.

La escuela es un relato al que le faltan nuevas ideas innovadoras y, ante eso, fomenta que se hagan cosas. Una escuela que no fomenta las ideas es una escuela que se está reproduciendo y se pone en funciones de intereses de mercado. Aquí lo que se quiere plantear no es precisamente eso, sino plantear un colectivo en interacción. Este, critica, «el metodo centrismo; la idea de que el método es más importante que la investigación» (Esbrina Recerca, 2019).

Azken batean, gizakiak teknologiek, animaliek eta objektuekin duen esanahia bereizteza da, gauzak bizidunak eta ez bizidunak nola erlazionatzen diren ulertzeko erabiltzen ditugun kontzeptuak birpentsatzetik hasi behar dugu, bereziki batez ere politikan eta ezagutzan.

### 2.3.1. HAUR HEZKUNTZAN IKERTZEN

Ideiak argitze aldera, hezkuntza eta ikerketa hezkuntzaren erronka intelektualagoa eta konplexuagoa izatea da. Baina, ikerketa posthumanistak gizakien, animalien, objektuen eta indarraren izaera interkonektatua bilatzen du. Hezkuntza eta ikerketa hezkuntza, mobimentuan dagoen prozesua da eta ideia posizionatzeko aukera ematen du. Era berean, eraikuntzan dagoen prozesua ere bada, mugatua ez dagoen ikerketa eta metodo batekin mugatzen ez dena, etortzeaz dagoen prozesua da. Badakit non hasten naizen baina ez dakit non bukatuko dudana (Hernández-Hernández, 2017).

Beste era batera esan da, kausalitate linealean oinarritutako ikerketen nozio tradizionalei aurre egitea eskatzen da eta Elizabeth St. Pierre-ek (2013) dioen moduan, aurrez ezarritako datu finko zehatz eta isolatuak ez dituen ikerketa nahi da. Hitz baten, harremanetan nahiz, prozesuan oinarritzen den, Hezkuntza Posthumanista defendatzen da.

Ikaskuntza erronka batean aurrean gaude, Hernández-Hernández (2007) "Espigador@s de la Cultura Visual" liburuan<sup>4</sup> adierazi bezala, entzunketa prozesu pasibo batera ezin gara mugatu. Entzute-prozesuak esanahi-trukerako prozesu aktiboak lortzera bideratu beharko lirarteke, elkarrizketak. Bestea ezagutzeko eskakizun etikoa ulertzeko eta onartzeko beharretatik abiatuz,

---

<sup>4</sup> Hernández-Hernández, F. (2007). Espigador@s de la Cultura Visual. Otra narrativa para la educación de las artes visuales.

harremanen sentsazioetan murgildu eta haurrei hitza emanez, aurkezteko modu guztietan hitza adierazten lagunduz, lan-proiektuen hezkuntza-ikuspegiak zeregin garrantzitsua du.

Oraindik, txikien begirada jasotzen duten ikasketen agerpena oso mugatua da batez ere, Haur Hezkuntzako etapako ikasleetan (Argos, Ezquerria eta Castro, 2011). Hala ere, txikien iritzia jasotzen duten ikerketak urriak izan arren, Vidiella, Ventura, eta Hernández (2004) goraiatu bezala, ardura handikoa da lehen pertsonan esperimendatzen duten gaiei buruz duten ikuspegia berreskuratzea, gai horien protagonistak baitira. Horregatik, lan proiektua esku tartean hartu eta ikerketa bidea planteatzen da irakasle nahiz, haurrak elkarrekin esperientziak konpartituz gaitasunak eskuratzeko.

Alegia, Malaguzzik (2001) erran zuena Hoyuelosek (2004) azpimarratzen du; “Recogiendo las ideas de los niños y las niñas, el adulto puede transformar su propia cultura a partir de los valores o del punto de vista que tienen los niños y niñas sobre la sociedad y la cultura”(3. or). Baita, haurrekin bizitzen eta lan egiten ere; heren bat ziurtasunarekin eta bi heren ziurgabetasunarekin eta berria den zerbaitekin aritzea da.

### 2.3.2. ARTE HEZKUNTZA ETA IKUS-KULTURA KRITIKOA HAUR HEZKUNTZAN

Loturak eginez, Ikuskultura, HH-ko Arte Hezkuntzaren joera pedagogiko garaikide eta berritzaileetan sakontzeko erramienta sendoa da (Vernia Carrasco, 2022), unean garaian inguratzen gaituen gizarte eta kultura ezaugarriak irudi bidez azaleratzen ditu. Haurra jaiotzen denetik irudi ezberdin pila batekin inguratzen da eta berauek informazio bat transmititzen die non, haurra informazioa beregain hartzen joango den bere nortasuna eraikiz. Hortaz, bere buruaren (identitateaz) nahiz, munduaren (errealitatea osatzen duena) gaineko errepresentazioak eraikitzen laguntzen die haurrei. Bide beretik, haurrek ikuspegi kritikoa lantzeko eta inguratzen dien gizartearen hausnartzeko gaitasuna garatzeko jarduerak dela ere esan dezakegu.

Hori dela eta Hernándezek “Hezkuntza eta Arteak posthumanismotik pentsatzea” kongresuan<sup>5</sup> azaldutakoari segida emanez, Haur Hezkuntzan inguratzen gaituzten irudiak aztertzen edo ikertzen erakustea garrantzitsua da txikitatik pentsatzeko gaitasuna garatzen hasteko eta beraien garapenean ongizatea bermatzeko (Esbrina Recerca, 2019).

<sup>5</sup> Esbrina Recerca. (2019, 13 diciembre). *Pensar la educación (y las humanidades) desde el posthumanismo* [Vídeo]. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=bTLGdzryNf0>

Modu batera, Hernándezek (2002) Haur Hezkuntzan Arte Hezkuntza eta Ikus Kultura lagungarri direla planteatzen du, sorkuntza bultzatzeko, begirada askotarikoak izateko eta artearen munduan murgiltzeko (norberaren garapenerako zein, etorkizuneko arte hezitzaile izateko). Haurrekin, gai bera era ezberdinetan behatu eta lantzeko aukera zabaltzen du.

Bestalde, Aberasturik (2023) Ikus Kultura, gizartearen ezaugarri bisualen fokua, jakintza eremu aurkezten du non, besteak beste, ikasketa kulturaletatik, arte historiatik, teoria kritikotik, filosofiatik eta antropologiatik egindako begiradak biltzen diren. Izan ere, Ikus kulturak lantzen dituen hainbat alderdi estuki kateatuta daude Ikus Arteekin eta Arte Hezkuntzarekin. Berdinki, artea ez da soilik Ikus kultura, Ikus kulturak egun Arte hezkuntzari eginiko ekarpenak aintzat hartuta, HH-an proposamen pedagogikoa planteatzea aldarrikatzen du, ikerketa bide diren, ikas prozesuak esperimentatzeko eta ezagutzak geureganatzeko.

Askotan, Arte diziplina, hezkuntzatik kanpo, talde zehatz bati lotzen da, hezkuntza tradizionalerako bideak erraizetan itsatsia daudelako, edukiak helarazi eta barneratu (Hernándezek, 2019). Ordea, pedagogikoki baliabide anitzak aurkezten digu Arte Hezkuntza eta Ikuskultura kritikoak, haur hezkuntzan esperientzia askotarikoak sortu eta ikaskuntza prozesu aberatsak gauzatzeko.

#### 2.4. HEZKUNTZA HOBEKUNTZA IKUSPEGIA

Berrikuntza hitza elhuyar hiztegian “innovación, renovación y reforma” bezala izendatzen da. Hiru aukerek mudatze bat adierazten dute zeina, aldaketa esparru anitzetara begira egon daitezkeena.

Berriz, Hezkuntza Berrikuntzari dagokionean, Josep Serentillek web orrian, honela dio “Aldatzeko eta berritzeko prozesu planifikatua, ikerketa batean oinarritzen dena, gizarteko bilakaera bati dagokiona, hezkuntza sistemaren kalitatea hobetu nahi duena eta gainerako ikastetxeetara eraman daitezkeena da” (*Hezkuntza Berritzeko Proiektuak - Dpto - Educación*, s. f.-b).

Askotan erreformak berrikuntzarekin lotu dira baina, garrantzitsua da bata eta bestea desberdintzea. Adibidez, Barraza-n (2005) hitzetan; alde batetik erreformek, hezkuntza sistemako estrukturan aldaketak eta antolakuntza zein, helburuetan egokitzapenak egitea berekin ekarri ohi dituzte. Bestetik berrikuntzak, aldaketa zehatzei erreferentzia egiten die,

ikuspegi pedagogiko-didaktikotik justifikatuta eta baloratuta egon ohi dira eta hiru alderdi aintzakotzat hartzen ditu: ezezaguna den zerbaiten azalartzea, zerbait hori nobedadetzat edukitzea eta fenomeno berri horren erakundetzea.

Ordea, Casterok (2018) berrikuntza erronka bat baino gehiago dela dio. Gaur egun, irakasle guztien irakaskuntza-praktiketan inposatzen den errealitatea. Gainera, harreman zuzena du etengabeko prestakuntzarekin, eta, beraz, XXI. mendeko irakasleei zuzenean edo zeharka esleitzen zaizkien zeregin ugarietako bat da.

Segida emanez, ondorengo adituak honela dio, “Una fuerza vital, presente en escuelas, educadores, proyectos y políticas, que es capaz de reconocer las limitaciones de la matriz educativa tradicional y alterarla para el beneficio de los derechos de aprendizaje del siglo XXI de nuestros alumnos.” (Rivas, 2017, 20. or.). Hein batean, gizarte aldakor batean hausnartu eta hezkuntza ikerketa prozesuak ikasteko ezinbesteko dira hobekuntza proposamenak gauzatu eta errealitatera egokitzea.

Ideiak argituta eta lanaren harira bueltatuz, eskolak iragana eta etorkizuna presente izan behar ditu errealitatean beharrei erantzuteko. Horren arabera izango baitira, hobekuntza proposamenak, elkarren arteko esperientziak eskaintzen digutenak eta ikasketaren bide etengabe jartzen gaituztenak.

Horretarako, Arteak Haur Hezkuntzan zeregin handia du gure pentsamendu pedagogikoak antolatu eta edozein ikasgai irakasteko. Ordea, ikastetxe asko dira Artea, tailerretara eta ekintza solteetara mugatzen dituztenak eta horren etsenplu da practicum III-ko gelako marrazki solteak, askotan amaitzen ez direnak eta mahai gainean galtzen direnak. Baita, Arno Stern Alemaniarraren metodoan oinarritzen den asteroko tailerra, helburu finkorik gabe orri zuria koloreztatzen aritzen dira denbora tarte batean. Honi erantzuna emateko Arte Garaikidea ( Art Thinking, Situ akzioak eta Performantzia) lagun da, hezkuntza prozesuak aberastu eta eskola birpentsatzeko.

### 3. IKERKETA IKASPROZESUA

GRAL-ren norabidea ikerketara begira. Ikerketa kualitatibo hau, paradigma interpretatiboan kokatzen da eta ikastetxe zehatz baten egoera ulertu nahi da (Ershler, 2003) narrazio testua euskarri hartuta. Egoera ikasketa prozesu bat da eta bere baitan ikerketa honek fenomeno bat



du jomugan, hain zuzen **Arte garaikidea zergatik ez ezagutza transmititzeko eta eskola birpentsatzeko?**

### 3.1. IKERKETA HELBURUAK

Errealitatera lotzeko eta ikerketari dagokionean ere helburuak sartzeko nahitaezko izan da narratiba esperientzia-testua. Ipar orratz izan da hamarkada batzuk lehenagoko Dewey aditua kontutan hartuta “Dewey señaló hace décadas que la reflexión suele empezar cuando los profesores afrontan circunstancias conflictivas y eligen la opción de explorarlas (Dewey, 1933). El proceso de indagación desemboca en nuevos conceptos y en el cambio de práctica; al menos eso es lo que cabe esperar.” (Ershler-ek, 2003, 194-195.or) defendatzen duena. Hala nola, Arte Garaikidearekin dagoen harremana aztertu eta honek duen ahalmena praktikan jartzeko aukera bilatuko da, garapen iraunkorreko kalitatezko hezkuntza helburua lortzeko.

Ikuspegi horretatik ez ditugu irakasleak eta beren testuingurua aldagai solte moduan irudikatu, osotasun moduan baizik (Coll, C. (2010). Ikuspegi holistikoa horrek eskatu digu gure aztergaia bere testuinguruan kokatzea, hausnarketa eta pentsamendu kritikoa erabiliz, ikerketa sendotzeko. Horretarako helburu hartu dira:

- Aztergai den **ikasgela behaketa**
- **Harremanak** identifikatzea
- **Espazioaren** kontzeptua zehaztea
- **Irakasle rola** eta pentsaera ezagutzea
- **Ikasle ezaugarriak** aintzat hartzea

Ikerketa hobekuntza proposamenaren aurretik eta ondorengo ezaugarrien bueltan ibiliko da emaitzak aztertu eta ondorioak gaineratzeko nahiz, garapen iraunkorreko helburuetan aipagai den kalitatezko hezkuntzara hedatzeko. Ildo beretik, ikerketa honen bitartez, Ikastetxeko HH5 gelan Arte Garaikidea izango da ikasteprosesuen oinarri, jarduera praktikoaren emaitzak jaso, elkarrizketa bidez hausnartu, ondorioak atera eta hobekuntza proposamena “Buru Hausgarri” formatuan ikastetxeari aurkezteko.

### 3.2. IKERKETA GALDERAK

Helburuak kontuan izan da eta teoria sostengu dela, honako ikerketa galderak edo hipotesiak erantzun dira, ikastetxeko gabeziak identifikatu eta bertan hobekuntza proposamenarekin esku hartzeko:

1. Arte garaikideak, hezkuntza eta eskolaren kontzeptua birpentsatu eta hezkuntza-sistema ulertzeko modua aldatzeko aukera zabaldu dezake.
2. Hezkuntza garaikidearen kalitatea bermatzeko, ikerketa ikasprozesuak eta esperientzi-praktiko berritzaileak proposatzea beharrezkoa litzateke.
3. Artea garaikidea ezagutzak transmititzeko erabilgarri litzateke.

### 4. PROZEDURA



Irudi 1. Ikerkuntza prozesuaren kronograma. Iturria: Nik sortua

Ikastetxeko antolaketa kontuan hartuta, aurrez aurkeztu den kronograma txikia dago, ikerketan eman diren urratsak argi irudikatzeko. Proposatzen dudak ikerketa-ekintza ikerketa-modu bat da, eta aukera ematen du arazoak testuinguru jakin batean aztertzea gizarte-ekintzako programekin lotzeko, aldi berean ezagutzak eta gizarte-aldaketak lor daitezen.

### 5. METODOLOGIA

Nola egin dudak argitze aldera, prozesua aintzat hartzen duen, emaitza zehatzak bilatzen ez dituen ikerketa medio dela, hainbat tresna izan dira baliagarri, ikastetxean gabeziak antzeman eta ikerketa balderei erantzuna bilatzeko.

#### 5.1. ESKOLAREN DESKRIBAPEN MIKRO-ETNOGRAFIKOA

Deskribapen mikroetnografikoak datuak biltzeko teknikak eskatzen ditu, hala nola behaketa parte-hartzailea, elkarrizketa sakonak eta dokumentu edo tresna kultural garrantzitsuak

aztertzea. Ikertzaileak denbora tarte baten ikasten ari diren ingurunean murgildu ohi dira, gertatzen diren esperientzien eta gizarte-interakzioen konplexutasuna eta aberastasuna atzemateko (Rockwell, 1980).

Oro har, adituak dioena argituz, etnografiaz hitz egiten denean gizarte-unitate jakin baten bizimodua nolakoa den aztertzen duen ikerketa-metodoari egiten zaio erreferentzia. Gisa berean, lan hau burutzeko, prestigio handiko auzoan kokatua den, kristau eskolaren ekosistema miatzeko erabiliko ditudan estrategiak hauek izango dira:

ESTRATEGIA	ZER JASOKO DUT HONEKIN
- Eguneroko lan koadernoak "Cuaderno de diario de campo"	Behatutakoaren erregistro idatziak kalitate-deskribapenak egiteko.
- Eszena adierazgarriak	Eguneroko irudiak informazio eta esanahi iturri lagungarriak izan dira.
- Irakasleei elkarrizketa	Elkarrizketa erdi egituratuak erabili dira.

Taula 1- Erabilitako estrategiak

## 6. INTERBENTZIO PEDAGOGIKOA

Atal honek, Practicum III tartean egindako esku hartzearen, esperientziaren aldartea azaltzen du. Testuingua kontutan hartuta, ikastetxean espazio eta denbora jakin baten (ikus 1. eranskin) jasotako informazioa analizatuz, hobekuntza pedagogikoaren proposamena gorpuzteko asmoa da. Hots, ikasgelan behatutako ikas prozesua, Arte Hezkuntzaren laguntzarekin eta Ikuskulturaren babesarekin, helduon begirada humanista tradizionala ikuspegi Posthumanistarekin josten saiatzen da.

### 6.1. TESTUINGURUA

Proposamena ikastetxe kontzertatu batean eramanda aurrera. Ikastetxe hau 2023. urtean 188.743 biztanle zituen, Gipuzkoako hiriburuan kokatua dago non, EAE euskaldunen

ehunekorik handiena: % 33,5 bertan den. Gainera, administrazio, kultura, hezkuntza eta turismoaren zentro garrantzitsu bat da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Hein batean, mundialki ezaguna den hiriburua dugu Donostia; 2016-an Europako kultura-hiriburua izan zen. 2014an, *National Geographic* aldizkariak munduko hiri zorientzuen artean kokatu zuen Donostia. Horrek guztiak eta nazioarteko ekitaldiek, hala nola, Donostiako Nazioarteko Zinemaldiak, Donostiako Jazzaldiak, Musika Hamabostaldiak eta Beldurrezko Zinemaren Jaialdiak, hiriarri kanpo proiektzioa eman diote. Bada, Arte Garaikidearekin hartu emanean dagoen hiriburua da zeina, bertan da ere garai bateko “Tabakalera”<sup>6</sup> lantegia, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentru bilakatu dena.

Ikastetxeari dagokionean; itunpeko kristau eskola handia da, 0-18 urte bitarteko hezkuntza-eskaintza dute, non konpetentzietan oinarritutako heziketa sustatzen duten, pertsonak giza baloreetan hezteari nahi dute, baita euskarari eta euskal kulturari ere.

Kasu, praktikaldia Haur Hezkuntzako 2. zikloko HH 5 gelan egin da. Gela hemeretzi haurrek osatzen dute. Haur Hezkuntzari dagokionean gela espazioan, txokotan eta jolasa oinarri den metodologia erabiltzen dute. Nahiz eta eguneroko errutina gisa asanblada tartea ere baden. Bestalde, astean zehar burutzen diren, gelaz kanpoko ekintzak ere badira; artea, kontu-kontari, zientzia, psikomotrizitate eta musika tailerrak. Metodologia hau egunerokotasunean bideratzeko gelako erreferentzia den tutoreaz gain, beste irakasle batzuk parte hartzen dute. Hala nola, tailerretako irakasleak eta ingelesez mintzo den helduaren ereduak.

## 6.2. IKERKETAREN FASEAK ETA PROZESUA

Hortaz, zeharkatu beharreko ibaiaren ezaugarriak kontutan harturik, etengabeko abiadura handian aldatzen dagoen jendartea dugu testuinguru eta nahitaezkoa da uneoro, hezkuntza ingurune horretara egokitzeko ahaleginetan aritzea.

FASEA	EKINTZA
1. FASEA (azaroak 13 - abenduak 24)	Kontestuaren azterketa eta <b>behaketa</b>
2. FASEA (azaroak 27 - urtarrilak 8)	Irakasleari proposamena azaldu

<sup>6</sup> *Tabakalera - Centro Internacional de Cultura Contemporánea Donostia/San Sebastián.* (s. f.). Tabakalera. <https://www.tabakalera.eus/es/>

3. FASEA (urtarrilak 8 - otsailak 2)	U.D. eraldatu. Hezkuntza proposamena <b>aztertu eta hobekuntzak gehitu</b>
4. FASEA (otsailak 12 - otsailak 16)	Performancea: <b>artearen bitartez ikasi...</b>

Taula 2 - Faseak eta prozesua

Jarraian, fase bakoitzaren deskribapena eta azterketa zehatzagoa egingo da, gabeziak antzeman eta interbentzioa nola gauzatu den ulertzeko.

### 6.2.1. LEHENENGO FASEA: KONTESTUAREN AZTERKETA ETA BEHAKETA

Fakultatetik ikastetxerako saltoan, ikasle paperetik irakasle papererako aldaketan, nahitaezkoak nituen aurrez aipatutako tresnak, fase honetan, behaketa ahalik eta objektiboena egiteko, ikuskera egokia bilatzeko eta errealitate horretan esku hartze eraginkorra egiteko.

DATU BILKETA	IKASGELA	HARREMANAK	ESPAZIOA	IRAKASLEA/HAURRA	IRAKASLE ROLA
Eguneroko lan koadernoak, eskuz egina. <a href="#">“Cuaderno de diario de campo” digitala<sup>7</sup></a> ere.	Eguneroko jolaserako erabilgarri du haurrak, hezkuntza ikasketa pasiboa	Berdinen arteko harremanak, espazioak, IKT ak eta gizarte sareak ahulak	Espazio anitzak ikaskuntza prozesuan erabilera ez dutenak	Haurra erdigunean errealitatearen testuingurua kontutan hartu gabe	Informazioaren transmisore bakarra, “moralinaren” bideratzailea.
Eszena adierazgarriak	 Altzariak eta materialak hezkuntza tradizionalaren ispilu	 IKT-en erabilera anitzak falta.	 Arbela irakaslea haurrak aulkietan eserita eta hormetako irudiek informazio aberatsik ez.	 Gurasoei eginiko marrazkiak erakusteko urte askotan erabili diren koadernoak.	 Irakaslea elkarriketa sustatu, haurrak galderei erantzun.

<sup>7</sup>AMAIERA ETA HASIERA. (s. f.). <https://amaihasi.blogspot.com/>

<a href="#">Irakasleei elkarrizketa</a>	Etxea, espazio segurua, berrantolatzen	Sare harremanak jostea falta; tailerrak, gela, irakasle rola,...	Tailerren izaera, unitate didaktikoa, behar emozionalak ... espazioa ote?	Haurra familia, estereotipoak ekidin, hitz egiteko aukera eman, haurraren autonomia instrumentala agian?	Jakintzaren edukitzailea. Ikaskuntza prozesua bere esku dago. Haurrari akuilatu jarduera solteekin.
Eskolaren deskribapen mikro-etnografikoa	Kristautasunaren irudi errepresentazioa eta futbolari loturiko talde argazkia	Eliza eta pertsona gizartean, kultura tradizionala oinarri.	Arkitektura garaikidea, erabilera tradizionalari lotua	Errealitatea aintzat hartu gabe eliza sinesmenaren erdigunean, haurra eta gizona.	Instrukzioak ematen ditu eta errezo nahiz, mezu ezkutuekin gizona denon jaun da jabe.

Taula 3 - Datu bilketa ikerketa bidean

Esan beharra dago, urte batzuk lehenago, praktikaldia burutu den ikastetxeak, "Hezkuntza Berrikuntza" proposamenaren apustua egin zutela; Reggio Emilia, Malaguzzi pedagogia Italiarrak defendatzen duen tailerrak beraien egunerokotasunean sartu eta ikastetxeko izaera sendotzeko. Hala bada ere, askotan, sormenerako eta ikerketarako proiektu kultural gisa funtzionatzen duen pedagogia proposamenak, praktikan ekintza solteak izaten bukatzen dute eta horren eredu da aurrean dugun eszenatokia.

Zehaztasun gehiagorekin, narratiba testua, argazkien dokumentazioak, elkarrizketek etab. eskolaren deskribapen mikro-etnografikoa egiteko lagungarri izan ditut (ikus 2. eranskina) eta interbentzioa planifikatu eta praktikan jartzeko.

#### 6.2.2. BIGARREN FASEA: IRAKASLEARI PROPOSAMENA AZALDU

Atal honetan nire iritzi pertsonala lehenetsi eta proposamenaren defentsa aurrera eramango dut. Horretarako, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko 5 urteko, 19 kideko haur taldea izango dut, heldu erreferentea tutorea dela, beste irakasle batzuekin hartu emana izanagatik edo/eta formalki dokumentuetan beste modu batera proiektatua egonagatik.

Hori dela eta, irakasleari nire ideia asko arrotzak egingo zitzaizkiola jakinik, nire ikerketa lanaren noranzkoa azaldu nion. Era berean, esku artean nuen materiala erakutsi eta egin beharrekoaren helburuak praktikara nola eramango nituen esplikatu nion. Eginiko antolaketa hau izan zen:

INTERBENTZIOA		ASMOA
1	<a href="#">“SITU AKZIOA”</a>	Arte Hezkuntza eta Ikuskulturara gerturatzuz, lehen hiruhilabeteko unitate didaktikoari <sup>8</sup> amaiera dibertigarria ematea.
2	<a href="#">UNITATE DIDAKTIKO BIRFORMULATUA</a>	Arte Garaikidea lagun bigarren hiruhilabeteko unitate didaktikoa eraldatu eta ikaste berriak aurkeztu.
3	PERFORMANCEA	Hobekuntza proposamena borobiltzeko ospakizun eta festa haurren begietatik nola bitzen zuten jakiteko “performance”-aren antzeztokia prestatzea; esperientziaz beteriko amaiera borobila egiteko eta Arte Garaikideak eskaintzen dituen aukera zabalak hurrenez urren pairatzeko.

Taula 4 - Plangintza

Burutapen guztia ez ulertu arren, bere prestutasuna eta bultzada berehala jaso nuen. Horrez gain, Haur Hezkuntzako zuzendariari ere adierazi nion nire gogoia eta bide batez, bere onspena jaso nuen. Alegia, hau izan zen nire interbentzioaren ezaugarrietan kokatzeko pausoak.

#### 6.2.3. HIRUGARREN FASEA: HEZKUNTZA PROPOSAMENA AZTERTU ETA U.D. ERALDATU.

Behin, irakasle rolean eta ikasprozesuan gabezia identifikatuta, zein motatako jarduerak burutu nezakeen pentsatzen hasi nintzen, edo hobeto esanda, praktiketako irakasle gisa zer eskaini nezakeen.

Hobekuntza proposamena esperientzia bidezko ikasprozesua bilakatzeko, irakasle tutore eta taldean partaide diren hainbat irakasle hurrekin esperientzia baten murgiltzeko eta elkarrekin ikasteko, honako hau mamitu nuen.

<a href="#">“SITU AKZIOA”</a> U.D. ERALDATZEKO IKASTE BERRIETARA GERTURATZEN
Arte Hezkuntza eta Ikuskulturara gerturatzuz, lehen hiruhilabeteko unitate didaktikoari amaiera dibertigarria ematea.
HOBEEKUNTZA PROPOSAMENA

<sup>8</sup> [Eskolak oinarri zuten unitate didaktikoa](#)

1	   <p>Irudi 2. Espazioa, elkarrizketa eta materiala Arte Garaikidean</p>	<p>Bi saio burutu nituen; lehenengoan, ipuin labur batekin sarrera egin nien eta eskulturaren ezaugarri batzuk gorai patuz, beraien eskultura sortzen jarri nituen.</p> <p>Elkarrizketarako aukera zabaldu nuen, eskulturaren ezaugarri esanguratsuenak ezagutzeko: eskulturak izena du, mezu bat helarazten du eta denbora eta espazio batean kokatzen da. Ondoren, beraien eskultura ere atal horiek kabida dutela adierazi nien.</p> <p>Arte Hezkuntzari begira jarriz eta Ikuskulturaren laguntzarekin haurrak irudiak behatzen eta eskulturagile jarri nituen. Eskultura zer den beraien buruei galdezka, beste espazio batean lanean.</p> <p>Material birziklatuak erabili ziren eta familien partehartzea behar izan genuen haur guztiek beraien etxean birziklatzen zuten elementuak eskolara ekartzeko: zereal kaxa, jogurt potoak, txokolate kaxak etab.</p> <p>Bigarren saioa eguberritako oportunitate buek bueltan egin zen eta bertan izaten diren opari paperak etab erabili ziren gure eskulturak amaitzeko. Prozesua eta eginikoa komunitatean ikusgai jarri zen bideo eta erakusketa formatuan. Osotasunean (ikus 3. eranskina).</p>
<a href="#">UNITATE DIDAKTIKO BIRFORMULATUA</a>		
Arte Garaikidea lagun bigarren hiruhilabeteko unitate didaktikoa eraldatu eta ikaste berriak aurkeztu		
<b>HOBEKUNTZA PROPOSAMENA</b>		
2	 <p>DANBORRADA</p>  <p>EUROPATIK KONPONTZAILEAK</p>	<p>Ikaskuntza prozesuan ikastola erakundeko zenbait espazio erabili nituen; espazio lasaia, gainezka egiten diguten estimulu amaigabeetatik urruti.</p> <p>Eszenatoki horretan, helburuak lortzeko materiala birziklatua eta jasangarria, era zehatz batean kokatu nuen.</p> <p>Hasiera “Donostiako Danborrada” ipuin kontaketaekin eman nion. Segidan, denen artean, ipuin moldaketa egin zen, testu labur ulerkor eta tamaina handiko irudiekin.</p>





UDABERRIA DATOR!  
KOLOREAK HASI



Irudi 3. Ipuin tradizionala birformulatzen.



Irudi 4. Arte Hezkuntza eta Ikuskultura lagun, esku papera sortzen.

Horrez gain, beraien ipuina irudikatzeko lanetan jarri nituen, era kolektiboan, paperetik kanpora arbelean, beraien begirada ikusi nahian.

Eskolatik haratago begira jarri nuen irakaslea, hurrekin interaktuatzen maila berean.

Errealitatera hurbilduz, "Euskadiko Orkestrara" eginiko irteeran, ikusitako emanaldiaren esku paperak erakarrita, gure ospakizuna izango zen performancea iragartzeko; esku parera sortzen jarri nituen.

Era berean, lana burutzeko espazio lasaia eta material birziklatua erabili nuen (kodigo barra txikiak, tipografia ezberdineko letrak, paper ontzira botatzen ditugun forma gabeko kartulina zatiak eta oinarrizko koloretako forma geometrikoak).

Pizgarri bezala Izaro Lizarraga ilustratzailearen abstrakzioaren pintzeladak "Artefaktu" bezala erabili nituen. Irudi bakoitza gai batekin lotua zegoen eta ezagutzak handitzeko asanblada eran elkarrizketa akuilatuz, irudiak behatu eta bakoitzak ikusten zuena gaineratu zuen. Hau lagungarri izan zen, bakoitzak sortu behar zuen esku paperean ze irudi sartu nahi zuen erabakitzeko. Era zabalago batean (ikus 4. eranskina).

Taula 5 - Bigarren eta hirugarren faseen plangintza

#### 6.2.4. LAUGARREN FASEA: "PERFORMANCE" ARTE GARAIKIDEA

Irakasle eta hurrei "performance" baliabidea ezagutzera eman nahi nien. Alegia, adierazteko eta sentitzeko espazioa eskaini nahi nien eta bertan, sentitu dutenaren arabera gorputza mugitzeko aukera ireki. Azken fase hau prozesuaren amaiera gisa planteatu nuen, eginikoa irudikatzeko eta prozesuari garrantzia emateko. Hona hemen zehaztasun gehiago.

## “PERFORMANCE” OSPAKIZUN ETA FESTA

Hobekuntza proposamena borobiltzeko ospakizun eta festa haurren begietatik nola bizitzen zuten jakiteko “performance”-aren antzektokia prestatzea, esperentziaz beteriko amaiera borobila egiteko eta Arte Garaikideak eskaintzen dituen aukera zabalak hurrenez urren pairatzeko.

### HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

3



Irudi 5. “Performance” gorputz adierazpen iturri.

Bestalde, performance eran amaitu nahi nuen eginiko ikas prozesua, festa bat iragarritz, haurren ideietatik sortutako festa. Horretarako, etxean ditugun aldizkari zaharrekin bakoitzak bere hegazkina sortuko du. Irakaslea imitatuz eta berak dakien horretatik jardunez.

Hegazkina lagun hartuta, eskolako espazioak esploratuz, gure bidaia ekingo diogu. Eta komuneko papera erabiliz jarraitu beharreko bidea adierazi nien. Horretarako denok lerroan ginen eta ni aurreneko postuan. Ibilbidea amaitu ondoren, argi itzalen gelan beraiek egindako argazkiekin eginiko proiektzioa aurkeztu nien eta itzalekin jolasteko espazioa eskaini nien.

Baina, irudien inpaktuak eta musikak sentiarazten digunaz jabetzeko nahiz, irakaslearen begirada hezteko; HH graduako hirugarren mailan eginiko lana ere ikusgai jarri nien.

Segidan aldamenean zegoen elizako kaperaren espazioa, koloretako argiekin argiztatu nuen eta bertan, guztiek egindako esku paperaren erakusketa zen. Esku paperaren festa bat iragartzen zen, itzalen gelan. Berriz, aldameneko gelara pasatakoan, Rosalia eta Mozart musikak lagunduta haur eta irakasle, nahi duten moduan gorputz adierazpena egiteko aukera zabaldu nien.

Taula 6- Laugarren fasearen plangintza

Unitate didaktiko honen moldaketa beharrezkoa izan da (ikus 4. eranskina) aurrez ditugun ikasteko metodoa ikaste berriekin kiribiltzeko. Horrez gain, ebaluazioari dagokionean, haurrak ikasteko testuinguru aberatsaren beharra dutela jakinik hori eskaintzen ahalegindu da. Beste ideia batzuk ere azpimarragarriak dira ostera: ikaste prozesu aberatsak, esperentzia bidezko ikasketa eta irakaslea haurrekin maila berean aritzeko grina sortzen saiatu da non, prozesu

horiek jasotzeko moduak asko daude eta baldintzen arabera bat edo beste aukeratu dezakegu. Kasu, fidelenak ongi eginez gero bideo grabaketak izan daitezke baina, oso erabilgarriak egin zaizkigu ere argazkiak zein egunerokoak.

Behin nire interbentzioa amaitzean, eginikoari gainbegiratu emateko, ikerketa prozesuan jasotako informazioa antolatu eta ideia interesgarriak azpimarratu nituen (ikus 5. eranskina). Argi dago bada, praktikan sortu zen ikasprozesuaren ezaugarriak, ez datozela bat eskolako irakasteko moduekin.

Hori dela medio, jarraian interbentzio pedagogikoaren eztabaida zabalduko dut; lan honetan, erabilitako erreferentzia teorikoak ikerketa prozesuan lortutako emaitzekin estekatzeko eta hobekuntza proposamena “Buru Hausgarri” formatuan itxuratzeko.

## 7. INTERBENTZIO PEDAGOGIKOAREN EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Lortutako hainbat emaitzen balioespenari heltzeko, dantzan arituko naiz, oinarri teoriko eta praktikan ikusitakoarekin, ikerketa lan honetan lortu dena argi azaltzeko eta etorkizunean ikusitakoa erabilgarri izateko.

Onartu beharra da, gizartea azken boladan asko aldatu dela eta aldaketa horiek Haur hezkuntzan ere eragin zuzena dutela. Izan ere, informazio kantitate erraldoiarekin inguratutako gizartean gauden unetik Carbonell-ek (2015) gaineratu zuen moduan, irakaskuntza gehiena eskolatik kanpo egiten da. Hori dela eta, interbentzioan Arte Hezkuntza eta Ikuskultura baliabideak erabiltzea beharrezko ikusi ditud, Malaguzzik (2001) defendatzen dituen haurren 100 hizkuntzak garatu eta inguratzen gaituen errealitatearekin konektatzeko.

Hasiera bateko transmisio hutseko planteamenduak, Arte Garaikideak eskaintzen digun hainbat ikasprozesuetan bilakatu ditud; haurrak ikaste berrietan murgildu dira, zalantzak nahiz, galdera eta erantzunak ziren bertan. Lehenagoko adituak dioten bezala pentsamendu kritikoa, sormena, lankidetzak, komunikazioa eta alfabetatze digitala kontutan hartu dira, haurren motibazioa ez itzaltzeko eta txikitatik haurra bere ikasketa arduradun bilakatzeko. Orobat, Eusko Jaurlaritza (2023). 75/2023 Haur hezkuntzako dekretuak ere honekin bat egiten du; praktikan, ikasleek, esplorazioaren, esperimendazioaren eta problemak konpontzearen bidez, beren ezagutza eraiki behar dute eta modu aktiboan parte hartu; haurrak errealitatean jarduteko behar dituen kompetentziak garatzeko.

Berdinki, transmisio hutseko edukiak; Arte Garaikidearen laguntzarekin, gelako estimulu amaigabeak sortzen dituzten objektuetatik, esperientzia eremu den espaziora gerturatu ditut; material birziklatu jasangarriekin, genero bereizketarik egiten ez duten elementuekin, ingurunean aktiboki jarduteko aukera zabaltzen dutenekin, etab. Horrez gain, hezkuntza legeak baieztatu bezala, Haur Hezkuntza etapan ikaskuntza globala den aldetik, diziplinartekotasuna bermatzen ere saiatu naiz (ikus 4. eranskina), ez ordea jarduera solteekin. Baizik eta, interbentzio ikasprozesuan, haurrei idazteko eta irakurtzeko beharra sortu diet; errealitatean ditugun elementuak irudi geometriko formekin parekatzeko lanetan ere jarri dira eta IKT-ak lanerako baliabide izan dituzte, aurrez adostuta zegoen gizarte zientzia ospakizun gaia landu ahal izateko. Hitz gutxitan, XXI. mendeko gizarte aldakorrean jolastuz, ikasteko moduak aurkitzeko ahaleginak dira.

Gizartearen gisa berean, hezkuntzak ere ezagutzak mugimenduan behar ditu, garai bateko historian edo antropozentrismoan hondoratu gabe. Horren aurrean, Hoyuelosen (2004) ideia aintzat hartu dut; artea eta eskola, kultura eta gizarte eragile planteatu ditut, Arte Hezkuntza eta Ikuskulturaren laguntzarekin, Aberasturik *et al.*, (2018) goraiatzeko duen, begirada kritikoak sortzeko eta ikasteko modu berriak eraikitzeko.

Baina, aldez aurretik beharrezkoa izan da Arte Hezkuntzaren estereotipoak guztiz apurtzea eta irakasleari artearen begirada zabaltzea. Hortaz, aniztasunari erantzuten dien etorkizuneko andereino eta maisuen prestakuntza sendotzeko Hernándezek, Esbrina Recerca (2019) kongresuan, esan bezala, eskolak ideia berri inobatzaileak behar ditu “Ikuspegi Posthumanismo” batetik; gizakia dena eta ez dena nahiz, aurrean dugun mundu birtualen harreman sarea ulertzeko. Bide batez, ikuskera bitarra baztertu nahi izan dut (neska/mutila, aberatsa/behartsuak, gizona/mundua, etab), jendartearen harreman sare ikuspegi gaurkotuetara irekitzeko eta aurrean ditugun agenda 2030 ko garapen iraunkorreko helburuen ardurarekin katigatzeko.

Esandakoaren arabera, garai bateko sinesmen kateek ez digute egungo eskoletan balio eta Hernández-Hernándezek (2017) diotenari eutsiz, eskolak birformulatzeko proposamena ezinbesteko da, irakasle on iraganeko sistema desikasi eta presente ditugun ikasprozesuak ikasteko. Aduaren aholkuak lagun hartu, hainbat urteetan errepikatzen zen unitate didaktikoa transformatu dut eta elkarren arteko komunikazioa, elkarlana eta esperientziak partekatzen diren prozesuak gauzatu ditut; Malaguzzik (2001) zioen bezala hasiera jakin batetik, ezbaian dagoen etorkizunera begira jarri ditut haurra eta irakaslea. Neurri batean, ikasle guztientzat

ekitatea eta aukera-berdintasuna bermatzen duten ikasprozesuak izan dira, talde lanean ez baitzegoen emaitza zehatzik, bakoitzak bere ikasprozesua burutu du.

Funtsean, Hoyuelosekin (2004) bat egin eta irakaslea eskolan ikasten jarri dut eta Aguirrek (2015) esaten zuen moduan, artelanen nahiz, Ikuskulturako artefaktuen esanahien erakusle hutsa izan beharrean, haurrekin ikertzen jarri da ezagutza berriak bereganatzeko. Irakasteko ez baitago errezeta magikorik ez da metodo zurrunik, bai ordea, ikasprozesu ikertzaileak, bakoitzaren ezaugarriak kontutan hartuz, ikasteko aukerak ematen dituzten eszenatokiak.

Hein batean, haurra gizarte-eragile gisa diskriminaziorik eza eta bere garaiko gizartean benetan eta eraginkortasunez parte hartzeko Rubianoren (2010) ideia praktikara eraman da eta haurraren iritzia gutxietsi gabe, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan (1989) ezarritako mugak ez gainditzeko; behar beharrezkoa izan da irakaslea entzule ona izatea. Askotan Malaguzzik (2001) zioen bezala haurrak innatoki duten ikerketarako grina helduen beldurren baitan itzaltzen baitira.

Haatik, lan honetan irakasleek ezinbesteko duten Ershlerrek (2003) azaldutako narrazio testuaren estrategia aurre aurrean jartzen dut, ikerketan erabilitako estrategiekin batera, irakaskuntzaren zimenduetan. Bertan, erregistratzen ez dena ahaztu egiten baita eta ezin da analisirako erabilgarri izan eta beraz, teoriatik praktikarako saltoan beti, ia erdi itoan ibiliko gara, ez baita ikaskuntza sendorik. Adibide dut nire esperientzia ikerketan sentitu dudana; gizarteko eskakizunek eta barneko sinesmenek sortzen duten emozio sentimenduen korapiloetatik askatzen lagundu didate eta "gizakiarekiko" kezka soilik murriztuta dauden Heziketa Diziplina Proiektu humanista gisako nozio tradizioaletatik desberdintzen.

Argi dago bada, txikien begirada jasotzen duten ikasketen agerpena oso mugatua izan arren, Vidiella, Ventura, eta Hernández (2004) adituek ziotenari jaramon eginez, haurrek lehen pertsonan esperimendatzen duten gaien buruz duten ikuspegia berreskuratzea nahitaezko dela, gai horien protagonistak bilakatzeko. Kasu, plazer bat izan da; ultra heroiekin, gustuko duen pertsoniarekin edo/eta haurrak sortu duen munstroarekin jolasean aritzea; ospakizun festa den ikasprozesuan tinkatu dira eta nire begirada hezi dute. Ezin ahaztu, bidelagun izan ditugun eta adituek goraiatzen duten; Ikuskultura, Arte Hezkuntza eta Performancea, HH-ko Arte Hezkuntzaren joera pedagogiko garaikide eta berritzaileetan sakontzeko erramienta sendoak direnak.

Hori dela eta Hernándezek “Hezkuntza eta Arteak Posthumanismotik pentsatzea” kongresuan azaldukoari sendotasuna emanez, Haur Hezkuntzan Arte Garaikidearekin inguratzen gaituen informazio amaigabea, aztertzen edo ikertzen erakustea, garrantzitsua da; txikitatik pentsatzeko gaitasuna garatzen hasteko eta beraien garapenean ongizatea bermatzeko (Esbrina Recerca, 2019). Oro har, lan honetan ezagutzak ikasteko beste bide batzuk gaineratu dira, norbanakoaren nortasuna nahiz, identitatea deskubritzeko baliagarriak direnak eta gizarte sareetan kateatuz, eraginkortasunez jardun dezaketenak.

## 8. ONDORIOAK ETA HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK

Amaiera gisa, lerro hauetan, “Arte garaikidearekin jolasten, harreman sareak kiribiltzen, haur hezkuntzan ikertzen eta ikasten” Gradu Amaierako Lanaren bidez lortutako emaitzen balorazioari heltzen dioten hainbat ondorio azaltzen dira.

Lan honen helburu nagusia, adierazpen plastikoaz haragoko Arte-Hezkuntza dagoela frogatzea izan da. Bada, hezkuntza artistiko bat, barne hartzen duena pertzepzio eta kognitibo-analisiak egiteko gaitasuna, parte garen mundua gogora ekarriko duena, kontraesanak bilduko dituena, atzemateko modu bat ahalbidetuko diguna, errealitatearen gure pertzepzioa landuko duena, anbigutasuna onartzen irakatsiko diguna, gizarte-lotura piztuko duena eta berezitasuna adieraztea ahalbidetuko duena. Halaber, eskola ekosistema aztertu eta hiru ikerketa galderen bueltan, xede den ikerketa galdera nagusiari erantzuna bilatzea izan da.

Zalantza gabe, nire lanean egindako interbentzioan argi eta garbi jabetu naiz, Arte Garaikideak, hezkuntza eta eskolaren kontzeptua birpentsatu eta hezkuntza-sistema ulertzeko modua aldatzeko ahalmena duela. Kontzeptuak birpentsatzea behar beharrezkoa baita, ezin gara curriculumaren atzetan harrapatuta gelditu eta errealitateari lotzen ez zaizkion ebaluazio emaitza eta edukiekin dantzan hasi. Bai ordea, artearen bidez, errealitatean ditugun irudi eta informazioa ulertu nahian, gure sorkuntzatik, iritzi askoren bueltan arituz, ezagutza lortzeko prozesu eta ikasketan.

Ez hori bakarrik, Hezkuntza Garaikidearen kalitatea bermatzeko, ikerketa ikasprozesuak eta esperientzi-praktiko berritzaileak proposatzea nahitaezkoa da. Izan ere, praktikan erabilitako IKT-ek eta haurren kultura entzuteak, eskolaz kanpoko errealitatean hondoratzen den ikerketa proposamenean barneratzen lagundu digute non, norbanako guztiei ireki zaie aukerak munduan ditugun sareen partaide sentitzeko eta motibazioz ikasten jarraitzeko.

Modu berean, teoria eta praktika uztartuz, lortutako datuek Arte Garaikidea ezagutza transmititzeko erabilgarri dela jakinarazi didate. Erabilitako estrategiek, hainbat datu objektibo nahiz, subjektibo helarazi dizkirate: haurren hitzek, irudi esanguratsuetan jasotako idazketa faseak, irakaslearen elkarrizketak, taldearen aurpegi nahiz gorputz adierazpenak, eta proposamenean haurrak artearekin izan duten jolaserako grinak izan dira horietako batzuk.

Neurri batean, plastikako edukiak irakasgai ezberdinetan zabaltzeak irakaslearekin loturak ezartzen lagundu didate eta irakasleak esan zidan bezala “zoragarria izan da zure proposamena, ipuin kontaketatik haratago joan zara, urte askoan nago irakaskuntzan eta aldemenean praktikaldiko kide ugari izan ditut, baina ahaztuko ez dudan esperientzia utzi didazu, mila esker *confort* egoeratik ateratzeagatik”. Ipuin kontaketa askoren ikusle izana zen irakaslea ez ordea, Arte Garaikidearen baliabideen partaide.

Egia da, eginiko ikerketa eta interbentzioari begirako hobekuntzak ere hausnartu ditudala. Alde batetik, hasiera batean espazio esperientzia eremuan azalpenak behin baino gehiagotan emango nituzke eta haurrari materiala manipulatzeko denbora tarte gehiago eskaini, proposatzen ditudan ikerketa prozesuan segurtasunez aritzeko. Aitzitik, irakasleen begirada tradizionala biguntzeko gure arteko elkarrizketak sendotuko nituzke, Arte Garaikidearen balioa hasiera batetik ezagutzera emateko. Azkenik, denbora tarte gehiago eskainiz, Practicum III tarte ikasturte amaierara pasako nuke, GRAL lanean buru belarri aritzeko eta lanerako zuzeneko datuak izateko.

Hori horrela delarik, Arte Garaikidearekin ezagutzak transmititu ditut eta eskola beste modu batera begiratzeko ateak ireki ditut. Hemendik aurrera irakasle bakoitzak bere erantzukizuna har dezala. Bide batez, baliagarri izango den “Buru Hausgarri” jolasa sortu dut (ikus 6. eranskina), Arte Garaikidearen hobekuntza proposamenak gauzatzeko baliagarria izan daitekeena. Hain zuzen ere, Hernandezek (2024) Kaxilda liburutegian “Una pedagogia desobediente” liburuaren aurkezpenean gaineratu zuen moduan, irakasle izatea arte bat da, bizitza denean sortzen zoazen artelana. Ideia hau aldamenean hartuta segiko dut nire ibilbidean, nire artelana sortzen.

Hortaz, orain zuei zuzentzen dizuet galdera nagusia, zuen artelana sortzeko eta galderari zuen erantzuna bilatzeko. **Arte garaikidea zergatik ez ezagutza transmititzeko eta eskola birpentsatzeko?** Arduraz jokatu galdera erantzuterakoan, aulki eta mahaian eserita soilik ez dugu ikasten, artearekin jolasean, plazera sentituz, gozatuz, gorputzak espazioan hitz eginez,

ahazten ez ditugun esperientziak eta jakintzak geureganatzen ditugu, errealitatean jarduteko ahalmen edota gaitasunetan bihurtzen direnak.

## 9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOA

Jaurilaritza.(2023). *75/2023 DEKRETUA*, maiatzaren 30 ekoa, haur hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. Vitoria-Gazteiz. EHA, 1-41. Hemendik berreskuratuta:

<https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/d/2023/05/30/75/dof/eus/html/webleg00-c-ontfich/eu/>

Acaso, M., & Megías, C. (2017). Art thinking. *Cómo el arte puede transformar la educación*.

Aguirre, I. (2006). Modelos formativos en educación artística: Imaginando nuevas presencias para las artes en educación. In *Foro Virtual Permanente del Congreso Regional en Formación Artística y Cultural para América Latina y El Caribe*.

Aguirre Arriaga, I. A. (2015). Hacia un imaginario para el futuro en educación artística. In *Educación artística y visual, el reto social, cultura y territorialidad: actas del I Congreso Internacional de Educación Artística y Visual ante el reto social, cultura y territorialidad, Sevilla, 2006* (pp. 22-31). Colegio Oficial de Doctores y Licenciados en Bellas Artes de Andalucía.

Andueza Olmedo, M., Barbero Franco, A. M., Caeiro Rodríguez, M., Silva López, A. D., García Cuesta, J., González Menéndez, A., ... & Torres Pérez, A. (2016). Didáctica de las artes plásticas y visuales en Educación Infantil. Universidad Internacional de la Rioja.

Ballestín, B. y Fàbregues, S. (2018). La práctica de la investigación cualitativa en ciencias sociales y de la educación. UOC.

Barragán, J.M. eta Moreno, A. (2004). "Experiencia artística y producción cultural, ámbitos para la educación socioeducativa". *Educación social* num. 28-n argitaratua (19-40. orr).

Barraza, A. (2005). Una conceptualización comprehensiva de la innovación educativa. *Innovación Educativa*, 5, 19-31. or.

Cantero, P. C. (2018). Innovación, comunicación y práctica docente. *Innovation, Communication & Teaching Practices. El G uiniguada*, (27), 07-12.



- Carbonell, J. (2015). *Pedagogías del siglo XXI: alternativas para la innovación educativa*. Barcelona: Octaedro.
- Coll, C. (2010). Enseñar y aprender en el mundo actual: desafíos y encrucijadas. *Pensamiento Iberoamericano*, 7, 47-66. or.
- Ershler, A. R. (2003). La narrativa como texto experiencial: incluirse en el texto. In *La indagación como base de la formación del profesorado y la mejora de la educación* (pp. 193-208). Octaedro.
- Esbrina Recerca. (2019, 13 diciembre). *Pensar la educación (y las humanidades) desde el posthumanismo* [Vídeo]. YouTube. <https://www.youtube.com/watch?v=bTLGdzryNf0>
- Fuset, M. (2013). *Pedagogía performática y patrimonio artístico*. Valencia: Universitat de València.
- Gómez, J.R. (2007). *Nuevos lenguajes en educación artística: La performance*. Junta de Andalucía. Consejería de Educación.
- Hernández Cardona, F. X. (2002). Repensar la Educación de las Artes Visuales desde los estudios de Cultura Visual. *Cuadernos de Pedagogía*, 312, 52-55.
- Hernández- Hernández, F. (2007). *Espigador@s de la cultura visual. Otra narrativa para la educación de las artes visuales*. Barcelona: Octaedro.
- Hernández Hernández, F. (2017). *Pensar desde el post-humanismo. Cuadernos de pedagogía. Hezkuntza berritzeko proiektuak - Dpto - Educación.* (s. f.). <https://www.educacion.navarra.es/eu/web/dpto/proyectos-de-innovacion>
- Hoyuelos, A. (2004). Reggio Emilia y la pedagogía de Loris Malaguzzi. *Revista Novedades Educativas*, 54(11).
- Jiménez Aberasturi Apraiz, E., Fernández Olaskoaga, L., Correa Gorospe, J. M., & Gutiérrez-Cabello Barragán, A. (2018). *Artearen sorkuntzatik hezkuntza ikerkuntzara. XXI. mendeko eskola*.
- Martín, I., & Roig, R. (2019). *Pedagogías del siglo XXI: De la educación tradicional a la educación contemporánea*. Editorial Síntesis.

Martínez, L. (2007). La observación y el diario de campo en la definición de un tema de investigación. *Revista perfiles libertadores*, 4(80), 73-80.

Mella, O. (2003). La necesaria reforma de la Reforma Educacional. *Umbral* 2000, 12.

ORGANIZACIÓN DE LAS NACIONES UNIDAS (ONU) (1989). Convención de los Derechos del Niño. Hemendik hartua. <http://www.un.org/es/events/childrenday/pdf/derechos.pdf>

Oiarbide, J., & Saenz, M. (2000). Reggio Emilia: Italiatik Euskal Herrira. *hik hasi: euskal heziketarako aldizkaria*, (53), 8-23. Hemendik hartua: [https://www.hikhasi.eus/files/posts/webgune\\_zaharra/2000/12/1498220249-053%20alea.pdf](https://www.hikhasi.eus/files/posts/webgune_zaharra/2000/12/1498220249-053%20alea.pdf)

Pagán, J. B. (2015). Pedagogías del siglo XXI. alternativas para la innovación educativa. *Educatio Siglo XXI*, 33(2 Julio), 325-328.

Pérez, M. B., Etxeberria, L., & Etxabe, M. (2001). Laburpena: nola irakasten dugu irakasleok? Zer ikasten dute ikasleek?. *hik hasi: euskal heziketarako aldizkaria*, (60), 43.

Vidiella Pagès, J., Ventura, M., & Hernández Hernández, F. (2004). Más allá de Lucian Feud: la experiencia del cuerpo en la sociedad. *Cuadernos de pedagogía*.

Rivas, A. (2017). Cambio e innovación educativa: las cuestiones cruciales. Santillana.

Rockwell, E. (1980). Etnografía y teoría en la investigación educativa. *Revista Dialogando*, 8(3).

RUBIANO, E. (2010). A la escucha de la infancia, *Educere*, 14(49), 297-303. Vernia Carrasco, A. M. (2022). *ArtsEduca* número 32.

## 10. WEB GUNEAK

*Situ-akzioak. Emma Kunz | Tabakalera*. (s. f.). Tabakalera.

<https://www.tabakalera.eus/eu/situ-akzioak-emma-kunz-lau-pareta/>

*Situ-akzioak. María Jerez | Tabakalera*. (s. f.). Tabakalera.

<https://www.tabakalera.eus/eu/situ-akzioak-maria-jerez-erakusketa/>

*Tabakalera - Centro Internacional de Cultura Contemporánea Donostia/San Sebastián*. (s. f.).

Tabakalera. <https://www.tabakalera.eus/es/>

Home | Tresnaka. (s. f.). <https://www.tresnaka.net/eu>

## 11. ERANSKINAK

### 11.1 - 1. ERANSKINA: IKASKETA PROZESUA

Ikerketa kualitatibo hau, paradigma interpretatiboan kokatzen da eta ikastetxe zehatz baten egoera ulertu nahi da (Ershler, 2003) narrazio testua euskarri hartuta. Egoera ikasketa prozesu bat eman da eta bere baitan ikerketa honek fenomeno bat bilatzen du jomuga. Ikerketa lanaren nondik norakoa era honetan gorpuztu zen.

1. A S T E A	azaroak 13 - 17	KONTESTUAREN AZTERKETA ETA BEHAKETA	- Ikastetxeko une bati argazkia atera eta esandi bat gehitu diot edukiak gehitze aldera. Abiapuntua.
2. A S T E A	azaroak 20 - 24	KONTESTUAREN AZTERKETA ETA BEHAKETA	- Ikasgelaren deskribapena idatzi: tutorea, gelaren antolaketa, dinamika... <b>Zer intentzio/helburu didaktikoarekin egiten dute lan?</b>
3. A S T E A	azaroak 27 abendua 1	KONTESTUAREN AZTERKETA ETA BEHAKETA	- Diziplinarteko azterketa eta soluzio proposamenak. <b>Zer nolako loturak daude gaien artean eta zer hobekuntza proposatuko nuke?</b>
4. A S T E A	abendua 4 - 8	KONTESTUAREN AZTERKETA ETA BEHAKETA	- Hezkuntza lankidetzak: moduak, metodologiak, programa eta proiektu motak. <b>Zer esaten da (idatzitako testuetan) eta zer egiten da?</b>
5. A S T E A	abendua 11 - 15	KONTESTUAREN AZTERKETA ETA BEHAKETA	- Hobekuntza proposamena kudeatzeko ikastetxe organigrama miatu.
6. A S	abendua 18 - 22	BERRIKUNTZA PROPOSAMENA	- Aurrera eramango dutan esperientziaren pausuak irakasleari

T E A			azaldu.
7. A S T E A	urtarrilak 8 - 12	BERRIKUNTZA PROPOSAMENA	- Erreferentziazko marko teorikoa edo gaia. GRAL lanarekin dituen loturak aztertu eta justifikazioa azaldu.
8. A S T E A	urtarrilak 15- 19	BERRIKUNTZA PROPOSAMENA	- Interbentzioa prestatu
9. A S T E A	urtarrilak 22 - 26	IRAKASLE IDENTITATEA	- IKT-ak erabiliz, irakasle irudia hausnartu.
10. A S T E A	urtarrilak 8 - 12	ESPERIENTZIAREN AZTERKETA	- IRUDIEN LOTURAK: Irudien narrazioa, esperientzia, prozesua jaso eta esperientzari esanahia eman. Gertatutakoaren narrazioa.
11. A S T E A	urtarrilak 29 otsaiak 2	ONDORIOAK	- Emaitzen azterketa eta hobekuntza proposamenak idatzi.
12. A S T E A	otsailak 5 - 9	LANAREN AZKEN ERREBIZIOA	- Erreferentzia bibliografikoak: Erabili edo kontsultatu ditudanak aipatu
13. A S T E A	otsailak 12 - 16	GRAL- LANA SORTZEN	- Dokumentua osatzeko lanean hasi.

Data hauetatik aurrera, esleitu zitzaidan Estitxu tutorearekin elkarlanean jarraitu nuen. alde batetik, jarraian duzun ideia eskema ispirazio iturri hartuta, ikerketa lanaren bizkarrezurra

sortzeko lanetan murgildu nintzen eta bestetik, narrazio textuaren nahiz, erabilitako estrategien datuak aztertzen hasi nintzen, lana aurrera eramateko.

### 1. Gaia: Hezkuntza praktika eta ikaste-irakaste prozesuaren balorazio kritikoa

- Ikasgela: maisu-maistra tutorea, gelaren antolaketa eta dinamika, komunikazio prozesuen erregulatzea
- Kasuen diziplinarteko azterketa eta soluzio proposamenak
- Hezkuntza lankidetzak: moduak, metodologiak, programa eta proiektu motak
- Kudeaketa lanak

### 2. Gaia: Proiektu didaktikoen eta hezkuntza programen (berrikuntzakoak, lankidetzakoak, esku-hartzekoak ...) diseinua, inplementazioa eta ebaluazioa, minorraren alorretik

- Prozesuaren definizioa: proiektuaren edo programaren garaiak
- Arazoaren azterketa eta definizioa
- Erreferentziazko marko teorikoa edo gaia
- Garapena eta diseinua
- Burutze edo ezarpena
- Eraitzen azterketa eta hobekuntza proposamenak

## 11.2 - 2. ERANSKINA: KONTESTUAREN AZTERKETA ETA BEHAKETA

### ARTE GARAIKIDEAREN PRESENTZIA

Hastapenean, ikasgela eta ikaskideak behatzeko solasaldiari ekin nion. Era berean, Arte Hezkuntza ekoizteko zeregina nola egiten zuten ikertzeari ere jaramon egin nion. Praktikaldiaren lehenengo egunean irteera izan zen arren, egun honetan ere jaso ahal izan nituen hainbat ideia; alde batetik, Arte Hezkuntzarako grina handirik ez nuen sumatu, ez zen ibilbideko artelaren aipamenik izan, ez eta ibilbidean pasa genituen irudien azalpenik ere.

Hurrengo egunean, ikasgelan nintzen, guneka banatutako espazioan: plastika gunea (ikus irudi 6), logika matematika gunea, hizkuntza nahiz, komunikazio gunea eta sinbolizaziorako gunea.



Irudi 6. Gela espazioan plastika txokoa.

Erranak erran, beraien egunerokoan, auto-espresionismoaren grina sumatu dut, Arte Hezkuntza klasikoari erantzuna emateko hezkuntzan askotan erabili den estrategia. Hainbat aste igaro eta gero, marrazkiak behatu ditut. Argi da, estereotipoak gaineratzen dira, sexuaren arabera marrazkiek ezaugarri ezberdinak dituzte (ikus irudi 7) eta haur askok marrazki berdinak marrazten dituzte, zentzu kritikorik gabe, sormen izpirik gabe telesailetan edo egunean zehar erakargarriak zaien irudiak erreflektatzen dituzte eta hausnarketa tarterik ez da.



Irudi 7. Neska mutil, dualismoaren estereotipoak

#### IRAKASLEAREN BEGIRADA

Gainera, irakaslearen kokalekua, Reggio pedagogia berrikuntzatik urruti sumatu dut. Arte Hezkuntzaren ikustea, esku-trebetasuna garatzean eta psikomotrizitate fina hobetzeko nahian zentratzen du non, babesean formalismo estetikoa bereganatzearen helburua ere baden. Erabiltzen dituzten irudiek ere badute zer esana (ikus irudi 8) ostera, irudien mezu ezkutak

irakaskuntzan dira erabiltzen, kristautasun tradizionala transmititzeko eta gizona eta munduaren ikuspegi humanista finkatzeko.



Irudi 8. Irakaslearen irakaskuntza irudi bidez

Aldiz, ikasgelako espazioaren antolaketa eta materialari begira; Koloretako errotulagailuak, margoak, plastilina, puntzoiak, guraizeak, kola, etab jarduera sinpleetan erabilgarri ziren zeina, espazioa elementu eta objektuz beterik zegoen (Ikus irudi 9) jarduerak egiteko askotan leku moldaketak egin behar ziren.



Irudi 9. Ikasgela antolamendua

## HAURREN KULTURA

Practicum III esperientzia narrazio testuan idatzi eta koaderno digitalean blogg formatuan da jaso. Bertan, Hezkuntza testuinguruan haurrak errealitatea aurkitzeko pertzepzio zuzena eta ulerkorra izateko eskubidea duten aldetik badira zenbait arau hauste (ikus irudi 10).

Goizean haurrak gelara iristen dira; beraien autonomia garatzeko motxila, hamaiketakoa, txamarra, etab antolatzen dituzte. Gelako espazioan hainbat txoko daude eta plastika mahaian beti bada ekintzaren bat, plastilina, ogi birrintzearen ekintza, marrazketa, etab.



Irudi 10. Haurren kultura

Haurrek, bere kideen arabera edo nahien arabera egin nahi duten ekintza aukeratzen dute. Egin eta egin psikomotrizitate fina lantzeko dela aipatzen du irakasleak. Ez dute erronkarik, eginiko marrazkiak karpetan sartzen dituzte eta plastilina eta ogi birrinduarekin libreki jolasten dute norabide gabe.

#### GIZARTE ERREALITEA

Eguneroko ohituretan erortzen dira eta ez diote garrantzia ematen inguratzen dioten gizartean gertatzen denari, ez da ere izaten diren aldaketei. Hezkuntza formalaren mugetara lotzen dira, curriculumaren zurruntasuna ez dute beraiena egiten. Irakasleei eginiko elkarrizketetan<sup>9</sup> jasotako ideiek hitz politikak igortzen dizkigute, baina errealitatera egokitzen dira?

Etxea, goxotasuna eta segurtasuna, gizarteratzeko baldintzak. Alegia, haurra bere gorputzetik, eraikuntza, plastika, arlo logika matematikoa, sinbolizazioa eta komunikazio edo hizkuntza lantzeko txokoak erabiliz, espaziora zabaltzeko ekintza. Bera den bezala adierazteko proposamenak aurkeztu, haurrak harreman seguruak eraikitzeko. Beharren arabera gela edota espazioa berrantolatu, inguru aberatsa eskaintzeko. Izan ere, haurraren testuinguruak baldintzatzen du bere garapena eta ongizatea.

Egoera erreala, esanahia handikoa, kultura eta gizartearen ezaugarriekin batu daitekeena (ikus irudi 11)? Ikusizko jardunak duen indar erraldoiaz eta beraz, gizarteak daraman abiadurari egokitzen dena?



Irudi 11. Ingurune aberatsa eskaini

<sup>9</sup> [Elkarrizketa](#)



Haurra eta familia helburu, baita haurren garapena. Arloka premiak behatu eta haurren beharrak identifikatu, indar-guneak ematen saiatu. Bera izateko, besteekin eta testuinguruarekin erlazionatzeko aukerak eskaini, beldurrik gabe, onarpen batetik, segurtasuna lortzeko. Joera estereotipatuak ekidinez, gure boterea neurtuz, haurrak bere esperientziak bizituz, ikasi behar du eta guk testuinguru aberatsak sortu behar dizkiegu, aktiboki bere identitatea eraikitzeko.


Hartara hitz egiteko tarteak eskaintzea beharrezkoa da, etxeetan gurasoek haurrekin egoteko tarteak murriztuak baitituzte zein, haurrak erdigunean ez diren. Beraz, haurren beharrak asetu gabe daude askotan eta arreta behar dute, entzunak sentitzeko eta sentimenduak bideratzeko.

Elkarrizketa jasotako ideiak aste honetako albiste deigarriaren segida dela ere esan daiteke. Bertan, bildu dira haur, nerabe eta helduak, beraien beharrak eta nahiak bueltaka dituztela, teknologiak zabaldu digun mundu digital nahiz, birtualean korapilatu dira. Izan ere, pornografiari loturiko sareetan kateatu dira hainbat ikasle.

Adi! harremanetan elkarreraginean sostengatzen den testuinguruan gaude eta jarraian irakasleak ahotan hartu dituen ideiak bere egokitasunean nola lantzen diren jabetzea beharrezkoa da.

Eskolaren izaera tailerretan oinarritzen da, natura eta ingurunea, musika, kontu kontari plastika eta psikomotrizitate tailerra. Gelako lanketak unitate didaktikoekin bideratzen ditugu eta taldearen arabera egokitzen ditugu. Haurra adierazpena bideratu. Testuinguru edota mundua deskubritu. Egin da dagoenaren gainean eraikitzeak ez du zentzurik. Tailerren izaerak, LH ikuspegiari begira jartzen gaitu eta unitate didaktikoen helburu zehatz eta itxietan erortzen gara.

Haurrak oinarrizko beharrak ez baditu asetuak, ez du ikasteko prestutasuna, momentu egokia aurkitu behar da. Lan egiteko emozioen oreka behar da eta sentimenduak bideratzeko erramientak eskaini behar zaie.



Irudi 12. IKT-en erabilera

Telebista pantaila gelan (ikus irudi 12) itzalita; abestiak entzuteko, abestiekin dantzatzeko eta ikastolen elkarteko jolasetan aritzeko pisten da. Gaineratzekoa da ere haurren jostailuek gelan protagonismo handia hartzen zutela eta izan zen gertaera bat ere horren harira; haur batek jostailuzko argazki makina ekarri zuen gelara eta gelakideekin argazkiak atera zituen. Irakasleak arazo egoera antzeman zuen, argazkien espantsioaren arriskua. Beraz, jostailua haurrari eskatu eta argazki denak borratu zituen, jostailu horren debekua ezarriz. Gaia horrela itxi zen baina, elkarrizketek honela diote:

Haurrak aurrera egin behar du hezitzaile naizen aldetik: haurraren autonomia, hizkuntza, garapen motorra, emozioak, etab ditut jomuga. Unitate didaktikoak gizartearekin interakzioak bermatzeko erramienta izan behar du. baina era berean, hezitzaileak izaera aske bat eraikitzeke lana egin beharko du.

#### NOLA IKASTEN DUTE

Hiruhileko honetan, [Hegaztiak gara Donostian](#) izenburupean egin duten unitate didaktikoa azaroak 8 amaitu dute eta nik azaroak 13 hasi nituen praktikak. Hala eta guztiz, gelan ikusgai zen Arte edota Plastika diziplina unitate didaktikoan nola txertatu zuten (ikus irudi 13).



Irudi 13. Atea eta plastika

Horrez gain, unitate didaktikoan aipatzen ez den " Bakearen usoa" eskultura gelan irudi bidez ezagutu zuten (ikus irudi 14). Nire praktikaldiko lehen astean egin zuten.



Irudi 14. Artea lantzen

Ez dakit ni Arte munduari loturiko ikuspegia adierazi dudalako edota interesgarria iruditu zitzaielako; baina, azalpen labur batekin eskulturaren egilea eta kokalekua aipagarriak izan ziren.

#### HAUSNARKETA ETA IKERKETARAKO JARRERA

Teorian formalki idatzia duten asanblada, eguneroko errutina errepikakorrekin osatzen da: zein ez da etorri, ze egunetan gaude, nahi duzu idatzi gaurko eguna, etab (ikus irudi 15). Haurraren errealitatearekin konektatu eta asanbladan elkarrizketa kritikoak sortuz, gizartera egokitze ahaleginetan dabilen ikastetxea al da?



Irudi 15. Asanblada

Gelara sartu eta jolaserako gunea zabaltzen zitzaien haurrei, bertako jostailuak erabiliz edo/eta etxeko jostailuak lagun direla. Berdinen arteko harremanak taldekatuak ziren eskolaz kanpoko gurasoen lagunak arabera. Aldiz, beraien arteko elkarrizketak amatxo, aitatxo, printzesa, super-heroiak etab-ra murrizten ziren; marketing eta kontsumismoaren merkatua ere bertan zen (ikus irudi 16).



Irudi 16. Etxetik ekartzen ziren jostailuak

## EBALUAZIOAREN IKUSPEGIA

Ekintza solteak egiteko gai diren edo ez behatuz, ebaluatzen dira haurrak (ikus irudi 17). Premia bereziak antzemateko ere baziren erakunde kanpoko galdetegia<sup>10</sup> urtero bete behar direnak.



Irudi 17. Ebaluazioari begira

Irakasleak, gai honi buruz hizketan ibili ziren, esku artean ebaluazioari buruzko dokumentu<sup>11</sup> interesgarria ere izan zuten eta bertan, haurren ebaluazioan testuinguruak duen garrantzia goraiatzzen zen, haurrak ikasteko testuinguru aberatsaren beharra. Beste ideia batzuk ere azpimarratzekoak ziren ostera: ikaste prozesu aberatsak, esperientzia bidezko ikasketa eta irakaslea haurrarekin maila berean aritzeko grina eta “prozesu horiek jasotzeko moduak asko daude eta baldintzen arabera bat edo beste aukeratu dezakegu. fidelenak ongi eginez gero bideo grabaketak izan daitezke baina oso erabilgarriak egingo zaizkigu argazkiak zein egunerokoak” (Barandiaran eta Larrea, 2015, 8.or).

Bada, Arte txokora gerturatzen ez ziren haurrak, irakasleak mahaian esertzen zituen, marrazketa eta idazketa prozesua ebaluatzeko nahiz, psikomotrizitate fina behatzeko. Ibilbideak ez al du garrantzirik? ikastetxeko Reggio pedagogiaren Hezkuntza Berrikuntza, dokumentatu gabeko ekintza solteak al dira?

## HEZKUNTZA GARAIKIDEAREN IKASKUNTZA

Egungo errealitatea pantaila nahiz, irudi ugariz osatutako ikuskulturak osatzen du eta hezkuntzan behar berriak gaineratu dira, gelan horren adibide da haur

<sup>10</sup> [Eskolaz kanpoko dokumentua](#)

<sup>11</sup> [Ebaluazioa](#)

batek egindako “Minecraft”; mazmorren esplorazio klasikoetan inspiratutako ekingintza eta abentura-jolasaren marrazkia (ikus irudi 18).



Irudi 18. Minecraft marrazten

Marrazkia amaitu eta karpeta ilunean sartu da, pentsamendu kritikoaren bidea pasiboki mantenduz, bere horretan gelditu da ikasketa.

Ordea, irakasleek ikaskuntzari dagokionean, bigarren elkarrizketan<sup>12</sup> jasotako erantzunen arabera, ikastea gauza berriak barneratzearekin lotzen dituzte, HHko etapan garapera begira jartzen dira eta testuinguru aberatsa planteatzera. Kontzeptuak barneratzeaz gain, bizitzarako baliagarriak diren gaitasunak barneratzearekin definitu dute. Erantzunetako bat hau izan da:

Nire ikuspuntua asko aldatu da, lehen eskolan, ... pentsatzen nuen hori ikastea zela; baina berehala konturatu nintzen bizitzan zehar ikasten nuela. Daukadan esperientziarekin eta irakaslea izanik beti nago gauza berriak barneratzen (ikasten ez). Hori da “ikastea”. Zeinengandik? ikasleengandik, haurrengandik, gurasoengandik, ...

Testuinguruan ikerketa hitza ahotan ez dut entzun baina, nire ikerketa sendotze aldera irakasleen galderetan hezkuntza begirako ikerketa lanak azaltzea eskatu diet.

Hezkuntzara begirako ikerketa maila askotan eman daiteke. Baina nire ustez, irakaslearen lekutik, interesgarriena eta aberasgarriena praktikaren gaineko analisia litzateke eta bere helburua praktika hori hobetzea litzateke. Ikerketa ekingintza ikusten dut egokiena eta aberasgarriena dena. (IRAKASLE 1)

Galdera honen aurrean lehenengo etortzen zaidana ... Garunaren inguruan egin diren ikerketa zientifikoak garuna eta garunaren funtzionamenduaren inguruko informazio eskuratu digu. Informazio guzti honek gizakia eta ikasketa prozesua ulertzen laguntzen digu eta informazioa hau oso baliagarria zaio hezkuntzari. (IRAKASLE 2)

<sup>12</sup> [Elkarrizketa](#)

Estrategiak bilatzen hezkuntzarako prozesua hobetzeko. Metodoak, tresnak, materiala ... prozesu luzea eta adostua izan behar da. (IRAKASLE 3)

Gainontzean “Hezkuntza Berrikuntza”-ren esperientzia ezaguna dutenez, jakin nahian ere galdezka joan nahiz eta denen artean; goitik beherako prozesua dela diote, “berrikuntzan egotea beharrezkoa da, eguneroko praktikatik abiatuz, berau egokitu, ... “ Hau burutzeko irakaslegoaren formazioa garrantzitsua dela gaineratu dute. Beraz, “klaustroa berrikuntza prozesu batean buru-belarri sartu eta tailerretan espezialista bihurtzeko” esperientzian murgildu ziren.

“Prozesu oso luzea izan zen, hezkuntza tradizionala; umeak denbora asko eserita fitxa ... gainera exigentzia maila irakurtzen, ... prestakuntza lehen hezkuntzara pasatzeko”; alde batera utzi eta umeen sentimenduak, jolasak, matematika, hizkuntza, harremanak, ... dena islatzeko aukera zabaltzen duten tailerretan dabiltza lanean. “Eta zailtasunak dituztenak berehala azaltzen dira eta txikitatik has gaitzke ... Irakasleak haien atzean egon behar gara begirada zabalarekin”. Ikuspegi inklusiboa eta aniztasunaren erantzuna edo zaintza bermatzeko ahaleginetan dabiltza?

#### ESKOLA KRISTAUA IRAKASLE LANAREKIN HARREMANETAN

Bada, hezkuntza tradizionalan kokatzen gara, ikuspegi humanistan; gizartea eta pertsona, emaitza estereotipatuen bila. Baloreak pertsonan estipulatu nahia; gizonezkoa, emakumea, familia, haurren uniforme informalak, hezkuntzak markatzen digun baremo normaletan sartu nahia ea tradizioari lotuta jarraitzen duen ikuspegia. Irakasle batek honela zioen:

Egunerokoan nik ez dut alderik nabaritzen. Kristau kulturaz hazi naiz eta hurbiletik ezagutzen dut erlijioa bera, balore gehienekin bat egiten dut eta nire jardura hortik doa.

Agian hausnarketa eta pentsamendu kritikoa helduak lantzetik hasi behar dugu. Horrela izan da beti eta listo! Gizartea aldatzen doa eta gu?

Berdinki, beste irakasle batek normaltasun baten ekosistema balitz bezala gaineratzen du.

Haur Hezkuntza magiarekin zer ikusia dauka, edo haiek horrela bizitzen direla pentsatzen dut. Bibliaren bitartez Jesusen historia joaten dira ezagutzen, noizean behin kaperara joaten dira (ikus irudi 19) Jesusen Bibliako pasarte txiki bat entzuteko. Hemen isiltasuna (meditatzea) eta hasten dira barneratzen eta sentitzen dutena adierazten dute.

Egunero errutina bezala otoitza txiki bat esan egunero. Eta edozein gai ateratzen denean koherente saiatu esaten eta haien artean hitzegin eta konponbideak bilatu; beno eskola guztietan egingo duguna.



Irudi 19. Kaperara

Urte batzuk atzera bidaiatu dut; gizonezkoei zuzenduriko irakaskuntza, diktadura, eliza eta aurrean parez-pare “adoctrinar” hitz ezaguna dator burura. Baliteke azken irakasle batek zioen moduan “ Elkarbizitza bat ematen da bi aspektuen artean.” aukera horri ere atea zabaltzen dizkiote, aldaketen beldurra baretu nahian dabilta?. Hor uzten dut nire pentsamendua.

#### ESKOLAKO EKOSISTEMA

Maila ekonomiko altuko familiak dira eskolako kide. Haurrek hitz egitean duten elkarrizketak egungo gizarte kapitalista eta kontsumitzailearen begirada dute.

Familia tradizionalaren irudia gaineratzen dute; haurra, aita, ama eta familia asko familia ugaria dira. Gelan etorkinak ere badira baina, hauek erlijioari lotutako sinesmenarekin bat egiten duten eta ekonomia egonkorra adierazten duten, familiak dira.

Bestalde, mundu mailan dauden ardurak ez dira beraien pentsamenduetan. Esaterako, agenda 2030 ra begirako ekintzarik ez da izan gelan eta beraien elkarrizketetan ere ez da bertako gairik eztabaidatu. Beraien ezaugarrietara egokitzen diren testuinguruak atsegin dute; munduan bidaiatu, objektu dibertigarriak erosi, fantasiaz beteriko ospakizunak, etab.

Ahal diren datu objektiboenak bildu eta gero, ikasteko oinarri zuten unitate didaktikoari begira jarri nintzen; berau aurreko urteetatik errepikatzen zetorren, hezkuntza lege berriari begirako aldaketak txertatuak zituen, dekretu berriak markatzen dituen helburuak zerrendatuak ziren curriculumaren eskakizunei erantzuteko. Honela, Prakticum III hasi eta laster, irakasleak plangintzari amaiera eman zion, Nestor Basterretxearen “Bakearen usoa” eskultura txertatuz, era simple baten egin zuen eta honi heldu nion nire nahia gorpuzteko.

### 11.3 - 3. ERANSKINA: “SITU AKZIOA” U.D. ERALDATZEKO IKASTE BERRIETARA GERTURATZEN

#### [“SITU AKZIOA” U.D. ERALDATZEKO IKASTE BERRIETARA GERTURATZEN](#)

### 11.4 - 4. ERANSKINA: UNITATE DIDAKTIKO BIRFORMULATUA

#### [UNITATE DIDAKTIKO BIRFORMULATUA](#)

### 11.5 - 5. ERANSKINA: INTERBENTZIOAREN HAUSNARKETA

#### INTERBENTZIOAREN HAUSNARKETA

Ospakizunez beteriko egunak gerturatzen ziren. Kasu, bigarren hiruhilabeteko unitate didaktikoa<sup>13</sup> “Danborrada, Kaldereroak eta Inauteriak” izenburuarekin aurkezten ziren eta nire lanari segida emateko hau behatu eta birformulatzearen premia sumatu nuen.

<sup>13</sup>[Bigarren hiruhilabeteko unitate didaktikoa](#)



Berau, ez zegoen ikasketara begira, curriculumean dagoen testuaren erreflexua zen, errealitatera moldatzen ez zena eta urte batzuk moldaketa gabe errepikatzen zetorrena. Hortaz, ezagutza praktikoak eskuratzeko orduan, elkarrekintza parte-hartzailea sustatzeko Arte Garaikidea eta Ikuskultura baliabide sozial nahiz, kultura gisa jarri nuen, baita ikasleen eta ikasle-irakasleen arteko komunikazio kanal horizontalak ezartzeko baliabide ere.

Esperientziak bizitzeko tarteak eskaini nahi nien: espazioa, materiala, irakaslearen rola eta beraiek diotena aintzat hartuz, Artea erabiliz, bertatik ikasteko, pentsatzeko, hausnartzeko eta bakoitzak bera den horretatik ikasketa sortu eta komunitatera adierazteko.


## 1. ESKOLAKO ESPAZIOAK

Ikaskuntza prozesuan ikastola erakundeko zenbait espazio erabili nituen; espazio lasaia, gainezka egiten diguten estimulu amaigabeetatik ihesi. Eszenatoki horretan helburuak lortzeko material aberatsa (ikus irudi 20), era zehatz baten kokatua zegoen. Espazio motibatzailea, emozioak eta sentimenduak sortzeko proposatu dena. Haurra eta heldua bertan hondoratu eta ikasten aritzeko aukera zabaltzen duena.



Irudi 20 - Esperientzia eremua

Baita espazioen erabilerak birpentsatu nituen (ikus irudi 21), ideia tradizionalen zainak hausteko. Hein batean, norberaren identitatea eta nortasuna deskubritzeko ausardia akuilatu nahi nuen, espazioak izendatuta zuten ekintza finkoetatik askatzeko.



Irudi 21 - Espazioen erabilera anitzak

## 2. ERABILTZEN DIREN MATERIALAK

Errealitatean ditugun elementu aintzat hartu nituen, kontsumo “marketig” merkatuak eskaintzen dizkigun objektuez bestelakoak (ikus irudi 22). Adibidez, egunerokoan, inguratzen gaituen materiala behatzeko aukera zabaldu nahi nuen eta beraiek barrenean duten informazio ezkutua ikustarazi.



Irudi 22 - Errealitatean aurkitzen dugun materiala

Material birziklatua eta jasangarritasunaren ardura ni eta mundua ikustetik haratago. Ikusten ez den informazioaz jabetu eta erronka ezberdinak pizteko.

Errotulagailuen kolore paleta oinarrizko koloreengatik aldatu nituen eta forma geometriko, zenbaki, letra etab. begi-bistan ezarri. Dualismoak apurtzeko asmoa ere bazen; generoaren aldetik ikuspegi tradizional bitarrari erantzuteko forma geometriko eta abstraktuak, birziklatzera botatzen ditugun itxura gabeko paper zatiak.

## 3. HAURREN IDEIAK TRANSFORMATU

Abiapuntua “Donostiako Danborrada” ipuina, ipuinaren ezaugarriak beraiek helarazi, behaketa bidez, ikusmenarekin irudiak mezulari direla konturatzeko.

Segidan, denen artean, ipuina moldaketa egin zen, testu labur ulerkor eta tamaina handiko irudiekin (ikus irudi 23).




DANBORRADA



EUROPATIK KONPONTZAILAK



UDABERRIA DATOR!  
KOLOREAK HASI



Irudi 23 - Hausnartu aldatu

Horrez gain, beraien ipuina irudikatzen lanetan jarri nituen beraien begirada ikusi nahian. Irakaslearen ikasketa haurren maila berean jarrita, paperetik kanpora atera eta arbelean era kolektiboan haurrak entzun nahi nituen.

#### 4. IRAKASLEAREN EZAUGARRIAK

Eskolatik haratago begira jarri nuen irakaslea, hurrekin interaktuatzen eta erdian jarrita ezagutzak transmititzetik hurrekin elkarrizketan elkarrekin ikasten jarri nituen, maila berean (ikus irudi 24).



Irudi 24 - Ikasteko modu berriei begira

Heldu arduratsuaren figura alde batera uzteko esperientzia aurkeztu nion irakasleari eta hezkuntza tradizionalaren erraiak guztiz mozteko grinarekin. Paraleloan, errealitatean diren IKT-en erabilera dibertigarria proposatu nuen, argazki makina, bideo grabaketa, proiektore, etab. Urte askotan zehar errepikatzen diren ohitura eta eskemak eraldatzeko praktika zen.

#### 5. GAIAREN IKUSPEGI ZABALA

Ospakizunak gure tradizioa baino gehiago; irudiak, mezuak, ideiak, loturak, etab. Esku tartean genituen festa egunei begirada zabaldu nahi nien. Jantzi ponpoxoetatik haratago begira edo/eta polit egotetik, nola sentitzen ginen hausnartzeko lanetan (ikus irudi 25). Horretarako, urte askotan errepikatzen zen kalejirari itxura aldatu nion.




Irudi 25 - Gaia zabalduz

Rosalía eta Mozart elkartu nituen ikas bidaia egiteko. Egunero erabiltzen ditugun espazioak modu ezberdin baten sentitu nahi nituen eta ospakizuna beraiena egin.

## 6. IKASKETA PERTSONALIZATUA

Egiteko modu amaigabeak daude sorkuntza eta ikusmolde ugari erakusten dutenak, haurrari berea eraikitzen lagundu behar diogu, norberarena bakarra eta berezia den horretatik horretarako irakaslearen begirada telebistako albisteetatik haratago behar du izan.



Irudi 26 - Haurren erritmora

Hurrek esaten dutena entzun eta egunerokoan gertatzen zaigun ekintzak esperientzia iturri bihurtu, ikertu pentsatu hausnartu eta ikasi. Aniztasuna eta inklusibitatea; mutil-neska, txuri-beltz, aberats-pobre binomioak zalantzan jartzeko




prozesuak aurkeztu nituen. Dударik gabe ez nuen ahaztu haur hezkuntzako ikaskuntza globaltasuna eta diziplinartekotasunaren ideia ere presente zen proposatutako hobekuntzan.

## 7. NIRE CURRICULUMA

Arte Hezkuntza eta Ikuskulturari uztartutako praktika burutzeko Izaro Lizarraga ilustratzailea abstrakzioaren pintzeladak gaineratzen zizkigun artista, ikusgai jarri nien. Inguruan ditugun artistak ezagutzeko eta irudi guztiek zerbait adierazten digutela jabetzeko. Bada, adierazteko 100 modu ditugula eta horiek deskubritzeak gure gaitasun autonomoa indartu eta ongi izaterako bidean jartzen garena sentitzeko.

Bestalde, performance eran amaitu nahi nuen eginiko ikas prozesua, festa bat iragarritz, haurren ideietatik sortutako festa. Practicum III tartean izan zen "Euskadiko Orkestra" emanaldiaren esku papera ere erabilgarri jarri nuen, gure performance festa iragartzeko eta esku paperaren funtzionaltasunaz jabetzeko.

### 11.6 - 6. ERANSKINA: BURU HAUSGARRI JOLASA



Irudi 27 - Buru hausgarri jolasa

### 11.7 - 7. ERANSKINA: BLOGG-A

[amaihasi@blogspot.com](mailto:amaihasi@blogspot.com)

### 11.8- 8. ERANSKINA: 1. ELKARRIZKETA

#### [1. ELKARRIZKETAK](#)

11.9 - 9. ERANSKINA: ESKOLAZ KANPOKO DATU BILKETA

ESKOLAZ KANPOKO DOKUMENTUA

11.10 - 10. ERANSKINA: EBALUAZIOA

EBALUAZIO TXOSTENA

11.11 - 11. ERANSKINA: 2. ELKARRIZKETA

2. ELKARRIZKETA

11.12 - 12. ERANSKINA: INPLIKAZIO ETIKOAK AITORTZEKO DOKUMENTUA

**GRAL ETA MAL-ek DAKARTZATEN INPLIKAZIO ETIKOAK  
AITORTZEKO ADIERAZPENA**

Behean sinatzen dutenek (ikasleak eta tutoreak) adierazten dute honako alderdi hauek egiazkoak direla:

<b>Ikaslearen izen-abizenak</b>	MAIDER ELIZBURU ARTABE
<b>Ikaslearen posta elektronikoa</b>	melizburu002@ikasle.ehu.eus
<b>Tutorearen izen-abizenak</b>	Estibaliz Jimenez de Aberasturi
<b>Tutorearen posta elektronikoa</b>	estitxu.aberasturi@ehu.eus
<b>Proiektuaren izenburua:</b> <input checked="" type="checkbox"/> GRAL <input type="checkbox"/> MAL	ARTE GARAIKIDEAREKIN JOLASTEN HARREMAN SAREAK KIRIBILTZEN HAUR HEZKUNTZAN IKERTZEN ETA IKASTEN
<b>Proiektuaren laburpen laburra (gehienez 150 hitz)</b>	Aztergai izan den eskola ekosisteman, hezkuntza tradizionalari lotutako Arte Hezkuntzaren estereotipoak identifikatu eta eskola kontzeptua Hezkuntza
<b>Saila:</b>	Plastika Adierazpenaren Saila
<b>Ikastetxea:</b>	Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea
<b>Graduaren edo masterraren izena</b>	Haur Hezkuntza, Tailerrak

**Planteatutako lanak barnebiltzen du (markatu dagokiona):**

- Gizakien behaketa
  - Inkesta, elkarrizketa, eztabaida-talde eta abarren bidez datu pertsonalak lortzea.
  - Gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak
  - Beste jarduerara mota batzuk pertsonekin edo kolektiboekin (zehaztu)
- 
- Aurreko ezer ez (zehaztu)

**Adierazitako aukeretakoa bat edo batzuk badaude, behean sinatzen dutenek konpromiso hauek hartzen dituzte:**

- Parte hartzen duten pertsona guztien baimen informatua jasotzea. Horretarako, honako betebeharrak hartzen ditugu gure gain: a) azterketaren izaerari eta horrek ekar ditzakeen onurari buruzko informazioa modu ulergarrian ematea; b) eskatutako parte-hartze mota eta emaitzei emango zaien erabilera akademikoa zehaztea; c) azterketak sor ditzakeen eragozpenak edo arriskuak zehaztea; d) azterlanean ez parte hartzeko edo haren baimena edozein unetan ezeztatzeko eskubidea dutela argi uztea, zenbait kalte edo diskriminaziorik eragin gabe; e) lortutako datuei eta horiek lortzeko moduari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea dutela adieraztea, hala nahi izanez gero. f) Parte-hartzaileen anonimotasuna bermatzea, haien nortasuna babesteko eta jendaurrean agertzearen ondoriozko arriskurik ez izateko.
- Datuen konfidentzialtasuna bermatzea. Horrek barne hartzen du egiletza ez jakinarazteko konpromisoa, parte-hartzaileen segurtasunaren mesedetan, eta informazio hori Datu Pertsonalen Babesari buruz indarrean dagoen legeidiaren arabera erabiltzekoa. Argitaratzean parte-hartzailea aipatu behar bada, haren baimena beharko da.
- Aurreko puntuetan adierazitakoari dagokionez, arreta handiz jokatzea azterlaneko parte-hartzaileak adingabeak direnean edo, oro har, edozein kolektibo kalteberetako pertsonak direnean.
- Datuak babesteari buruzko legeria ezagutzea eta betetzea. 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko; 2016/680 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa; eta 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzeko.

Donostian \_\_\_\_\_ en, 201\_(e)ko \_\_\_\_\_ Ekaina \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an

Sin.: Tutorea

ESTIBALIZ NORA  
JIMENEZ DE  
ABERASTURI  
APRAIZ -  
34109774S

Firmado digitalmente  
por ESTIBALIZ NORA  
JIMENEZ DE  
ABERASTURI APRAIZ -  
34109774S  
Fecha: 2024.06.18  
11:02:48 +02'00'

Sin.: Ikaslea

